



ARGIAren EGUTEGIA 2004



Euskaldunon almanaka

7€

- Eguneroko informazio erabilgarria.
- Hainbat gai, egunero irakurgai: umorea, euskal rocka, errezetak, natura, landareak, lasterkariak,...

Eskura ezazu!



ARGIAko 943 37 15 45 zenbakian, denda@argia.com helbidean
edo
ohiko salmenta puntuetan

«Aditu bat arlo jakin batean egin daitezkeen huts guztiak egin dituen norbait da» Niels Bohr (fisikaria)

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Geroa ikastolan. Juan Luis Markaida.
6. PLAZA. Joseba Butron. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. San Nikolas plaza, 1920-2003.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Pegatinak. Jokin Aspuru.
26. BERBETAN. Anje Duhalde. Jabi Zabala.
28. ERREPORTAJEA. UK-k 50 zenbaki. Unai Brea.

KULTURA ETA AISIA

34. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Julio Medem-en dokumentala.
35. MUSIKA. Rockadelica taldea. Diskoen erreseinak.
36. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta Abxagaren nobela berria.
37. KOMUNIKAZIOA. Gorliz Irratia.
38. NATURA. Eskola naturara. Satorra.
39. ELKARRIZKETA. Josean Llorente, Andrés Isasi Musika Eskolako zuzendaria.
40. OSASUNA. Autoestimua eta tabakoa.
41. JANTZI. Txapela. Jon Urresti.

EUSKARAZ

44. URIBERTSOAN BARRENA. Xabier Paiari elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
46. AKABUKO PUNTE. Gramatika apur bat Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan? Adibidez, Kux Kux jatebrea.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Berangoko ikastola, 1980. Unai Brea.
54. AITORMENAK. Xabier Mendiguren. Eunete Serrano.



26 Anje Duhalde

Berbetan

Lapurditik Bilboko Kafe Antzokira bidaia askotxo egiten ditu Anje Duhaldek. Hantxe egon da Jabi Zabala gure kolaboratzailea beragaz berbetan.



24 Albuma: pegatinak



49 Endika García



12 Mister Bizkaia 2003



54 Xabier Mendiguren



44 Xabier Paia



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
 e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Eunatze Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Menbeka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Urtzi Iglesias, Bittor Egorrola, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxepare, Iratxe Agirre, Eduard Ugarite, Xabier Etxebarri, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarregaray, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Mixelko Uranga
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Oneta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osonik edo zati, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskararen Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
 94 491 43 57 / 48990 Algorta

TOPAGUNEA

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

BERANGOKO UDALA

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

BERBETS ERANDION EUSKARAZ

Aldizkari honek Erandioko Berbets Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

50 zenbaki

Azala ikusita ohartuko zinetenez, UKren 50. zenbakia da hau. Zenbaki biribila da 50, urrezko zenbakia, ospakizunak eta iraganeranzko begiradak egiteko balio duen zenbaki horietako bat. Halaxe egingo dugu geuk ere oraingoan: aldizkariaren erdiko zati osoa (eta besteren bat) geure buruaz berba egiteko erabiliko dugu. Proiektu honen hasiera eta bilakaera gogoratu dugu (Bizarra Lepoan aipatu behar ezinbestean), etxe honetatik igaro direnak azalduko gara, eta gaur egungo UKz jardungo dugu.

Normalena etorkizunaz ere berba egitea izango litzateke, baina ez zaigu egokia iruditu etorkizunik daukagun ere ziurtzat jo ezin dezakegun honetan. 50. zenbakia kaleratu dugu, baina ez dakigu 56.a egin ahal izango dugun. 2004. urtea laino beltz batek estalita dator. Hori da errealitate gorria. Etorkizunaz esan daitekeen gauza bakarra, honenbestez, hasierako ilusio beragaz jarraitzen dugula da; aukerarik txikiena ematen diguten bitartean, eskualdeko, euskarazko eta kalitatezko komunikazio proiektu bat gauzatzen -eta ahal den heinean hobetzen- segituko dugu.

Esker ona adieraztea besterik ez zaigu geratzen. Eskerrik asko UK-k 50 zenbaki argitaratzea posible egin duzuen guztioi, bai zuen izerdia eta denbora hemen utzi dituzuelako, bai UK irakurriz bultzadatxoa eman duzuelako. Azken batean, zerbait idazten denean irakurlea da protagonista. Eskerrik asko bihotzez!

UK-ko lantaldea


gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>> **berria**



GEROAKASTOLA, 1999

Eutsi ezinik / Umeen mundua naturala da oso, helduona baino askoz naturalagoa. Betebehar fisiologiko bat datorrela? Bada, hura ase, eta kitto. Txizalarrira non, txorrotada han. Segurantzean hala ibiliko ginen denok historiaurrean, apurka-apurka "gizarte" deritzen amaraun ikusteziak txizari behar baino luzeago eustea bezalako lelokeriak egiten irakatsi zigun arte. Zorionez edo zoritzarrez, umeak, ume txiki-txikiak, ez daude oraindik guztiz gizarteakotuta, gurasoak horretarako eginahal ugari egiten dugun arren. Era hala sortzen dira goikoalako irudi politak. Umeen esfinterrak ez dira helduenak bezain arduratsuak; ez dakite askorik lotsaz, ez eta hainbat gauza ezkuruan egitearen onuzer ere. Umeen esfinterrak natura bera bezain naturalak dira. Bejondeiela. / Argazkia: Juan Luis Markaidea

Leihatila

> Josu Esnaola

Esan eta izan

Lehenengo batean Euskadi Irratiaren iragarki baten gainean aritu nintzen, ez dakit obsesioa izango ote den edo zer, baina gaurkoan ere irrati kate horren beste iragarki bat etorri zait burura lerro hauek idazteari ekitean. "Esan eta izan" zioen orduko iragarkiak. Gertatzen dena, ordea, zera da, esaten dena eta izaten dena, askotan, ez datozela bat.

Esan, zenbatetan esan digute PSE-EEkoek eta PPKoek eurak ere euskararen alde daudela. Izan, berriz, euskararen etsai amorratuak dira. Nola ulertu behar da, bestela, maiatzean Andoaingo Udalak osoko bilkuran aho batez onartutako euskararen udal araudia, indarrean sartu aurretik, alderdi "demokratiko" horiek indargabetzea?

Esan, Miren Azkaratek ere esan du euskaltegien lana txalotzekoa dela. Barnetegia saioa ere prestatu ei dute ETB 1 katean emateko. Ikas ezazu euskara eta irabazi bidaia bat munduan zehar, euskal etxez euskal etxe. Izan, berriz, kontuak bestera dira. Euskaltegien finantziarioa irizpide ekonomizistekin egiten da, matrikularen truke ordaindu beharrekoak %15 egin du gora batez beste, neurrikeratetik kanpoko taldeak diruz lagundu ez.

HIESaren aurkako kanpainak gogoan ditut, baita alkoholaren gehiegizko kontsumoaren edota drogen kontrakoak. Gogoan ditut genero berdintasunaren, eskola publikoaren edota gutxitu fisiko zein psikikoen aldekoak. Eta ez daukat ezer horien kontra, guztiak beharrezkoak begitantzen zaizkit, baina ez dut helduen euskalduntzearen aldekorik gogoratzen. Baina, euskararen etorkizuna bermatuta daukagunez...4

Iritzia

Esku artean darabilzun aldizkari hau UKren 50. zenbakia da. Honen harira gogoeta eskatu diogu luzaroan aldizkari honen zuzentzailea izan den Joseba Butron irakasleari gogoeta eskatu diogu.

Ekina plagea da

Atzo hasi ginen eta, hara!, UKren 50. zenbakia kalean. Nire partetik, zorionak, aldizkari honetan parte hartu dugun eta duzuen guztiok. Bai, ze honetan denok gara partaidea. Aldizkaria esku artean izan dugun guztiok: edo idazteko, edo irakurtzeko, edo begirada bat emateko; denok izan gara eta gara Uribe Kostako aldizkari honen bidelagun.

«Produktu txukuna, duina, polita egiten ahalegindu dira zenbakiz zenbaki erredakzio taldea eta borondate onez ibili diren hainbat pertsona»

Produktu txukuna, duina, polita egiten ahalegindu dira zenbakiz zenbaki erredakzio taldea eta borondate onez ibili diren hainbat pertsona. Eta benetan pozgarria da emaitza. Geure hizkuntzan hainbat kontu, elkarrizketa, argazki, bertso, informazio... bildu da orrialde hauetan. Euskarazko aldizkari dotore bat emaitza. Nork esango zuen *Bizarra Lepoan* izenarekin abiatu zenean! Zenbat ahalegin eta neke bidean!

Bada, honaino iritsita, alegia, gai garela erakutsi ondoren, agian gaurko gizartearen beharrian, ohitura eta gustu berrietara egokitzea ere lortuko dugu, aldizkari baten arrakasta zabalkundea ere bada eta. Horretarako, baina, ikasitako bideari eutsi eta etengabe ikuspegia egokituz jokatu beharko da, irakurleekin, euskaraz ere bizi den komunitatearekin konektatzeko. Ekin eta jarrai. Edo Txorierrin esaten den moduan, *ekina plagea da.* 4

Joseba Butron

photoshop > Ereagako igogailu berria



Argazkia & manipulazioa: Asier Mentraka

UK
Behar beharrezkoak tugu zuen
dirulaguntzak
91 02483676
Boluntzarreta



Iraganez doa denbora* beti / SAN NIKOLAS PLAZA 1920-2003

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Ezkerrean, Bearrikoentzako atea; eskuman, Goierrikoentzako

bazen > Goierri eta Bearriko kontuak

Duela urte batzuk, Elizak (erakundeak) eta elizak (eraikinak) askoz garrantzi handiagoa zeukaten gizartean gaur baino. Mezatara joatea ezinbestekoa zen, eta elizaren barruan norberak zeukan lekuak ere gauza asko esaten zuen gizarte antolakuntzaz. Getxoko Andra Mariko elizan, adibidez, Goierrikoek –abadeari begira gagozala– ezkerreko jesarlekuetan jarri behar zuten, eta Bearrikoek (holan esaten dute bertokoez, eta ez Beterrri) eskumakoetan. Sartzeko ere ate desberdinak zeuzkaten, goiko irudiek erakusten duten legez. Izan ere, Goierri eta Bearriren arteko muga eliza bera ei da; jesarleku ilara bien arteko pasabidea, zehatzago esateko. Bestalde, eliza barruko aulkiak gizonetakoentzat ziren, eta emakumeek euren jesarlekuetara eroan behar zuten etxetik. Hala ere, bereziki belauniko jartzeko egindako aulkiak zirenez, gainean jesartzea ez zen oso eroso, baina horretan ere mailak zeuden, emakume aberatsek gustura jesartzeko moduko aulkiak eroaten zituzten eta. ^m



Extremaduran dago Coria

begizorrotz > “koreano” berbaren jatorria

Betidanik hainbat izen eman zaizkie Iberiar Penintsulako beste lekuetatik etorrira Hego Euskal Herrian bizitzera gelditu diren etorkinei: maketo, belarrimotx... Gure eskualdean oso ohikoa izan da (zorionez, gaur ia ez da entzuten hau, ez besteak) “koreano” berba, ustez Koreagaz zer ikusia eduki lezakeena. Gure belarrietaraino heldu diren oinarri sendoko esames batzuek, baina, berba horren jatorriak Asiako herrialdeagaz inongo loturarik ez daukala ematen dute aditzera. Horren arabera, berba ez litzateke “koreano”, “korian” baizik, eta jatorria ez legoke Ekialde Urrunean, apur bat hurbilago baizik: Extremadurako Coria herrian, hain zuzen. Izan ere, garai batean gurera etorritako etorkin asko herri horretakoak ziren; batez ere Erandiora joan ziren asko, eta horren ondorioz harreman estua dago herri bien artean. Udaberrian egin zuten anaitze-ekitaldia, Extremaduran, eta hil honetan Coriako ordezkaritza bat ere izango da Erandion, Astrabuduko Extremadurako Etxeak antolatutako kultur astean. Gaur egun Erandion bizi diren extremadurak asko Coriakoak direla kontuan edukita, nahiko zentzuduna da “koreano” berbaren jatorriaz eman dugun hipotesia. Ala ez? ^m

datua > galipotaren “zenbakiak”



Galipota ez da oztopo izan aurtengo uda sargaritsuan milaka lagunek hondartzak betetzeko. Baina jakina, itsasoaz gozatzeak “prezio” bat eduki du oraingoan: bainua hartu edo harearen gainean ibili ostean, garbitu egin behar. Aditzera eman denez, bainu-denboraldiko hiru hilabeteetan 4.530 litro xaboi eta paperezko 548

bobina erabili dira Bizkaia eta Gipuzkoako hondartzetan. Bobina bakoitzak 570 metro zeuzkan luze; beraz, 312.360 metro paper xahutu dira galipota hondartzazaleen azaletik kentzeko.

Bestalde, eta Prestigeren istriputik denbora dezente igaro den arren, udan ere fuel ugari txatu da -1.015 tona- Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldean. Horietatik, 439 itsasoan hartu dira, eta 576 hondartzetan.

Azkenik, gai honegaz lotuta dagoen beste datu ere jakin ahal izan dugu: Animalia Basatien Bizkaiko Birgaikuntza Zentroan, Gortizen, galipotak jotako 2.500 hegazti jaso dituzte (zentroa 1999an ireki zenetik bertara ailegatu diren animalien erdia da hori). Horietatik, 300 baino ez ziren sartu bizirik, eta gainerakoetatik gehienak hantxe hil ziren: azkenean hogeiki besterik ez ziren onik irten. ^m

kale izendegia > aita Barandiaran plaza



Aita Barandiaran beharrean

Sopeloztarrek badaukate euskal antropologo, etnologo eta ikertzaile gipuzkoarrari eskainitako plaza bat. “Euskal kulturaren patriarka” izendapenaz ezaguna zen Joxe Miel Barandiaran Aierbe 1889an jaio zen, Ataunen, eta 102 urte betetzear zegoela hil zen, 1991n. Eusko Ikaskuntzaren sorreran partu hartu zuen, eta euskaltzain oso izateaz gain, Real Academia de la Lengua Española-ko kidea ere bazen. Bere lan handiena historiaurreko leize eta aztarnategien gaineko ikerlanek osatzen dute, baina era guztietako liburuak idatzi zituen: *Eusko Mitologia*, *Euskalerriko leen gizona*, *Historia general del País Vasco*, *Brujería y brujas*, eta abar. Aita Barandiaranek etnologia ikertu zuen gehien bat; euskaldunon ezaugarriak aztertu, bildu eta gorde zituen; eta ondorengoan ikerketen oinarri eta abiapuntu bilakatu zen. ^m



ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris.s.l. SERVITEC
 Y MARKA GUZTIAK
 Y 24 ORDUTAN ERANTZU-
 NA
 Y 3 HILABETEKO GARAN-
 TIA
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBI-
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

**BISITATU
GURE DENDA!**

MOROTXO



**350^{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!**

**URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA**

**TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82**

Getxoztarrak, auzotarrak

Auzo nortasunak inon indarik badauka, Getxon dauka. Hemen, nor bere auzokotzat aurkezten du bere burua. Oraingoan, bada, auzo horien arteko **mugei begiratu diegu**, egon litezkeen zalantzen bila.

Getxok ez du, ofizialki, auzorik. Bestela esanda, Udaletxeak ez du inolako auzokako banaketarik erabiltzen, hauteskundeetarako barrutiena ez bada. Jakina da, ordea, Getxo nortasun handiko auzoek osatutako udalerrria dela. Eta jakina, auzoak ardatz izanda, garrantzi handikoa da horien mugak non dauden; horretaz gehiago jakiteko ahaleginaren emaitza dituzue ondoko lerroak.

Gitxi gorabehera, denok dauzkagu argi Getxoko auzoen nondik norakoak, Areta eta Erromoren kasuan batez ere. Zalan-tzaren bat sor lezaketena Algortak alboko-akaz dauzkanak dira, bai Neguri bai Andra Marigaz. Gai horren inguruan argi apur baten bila, Valentín Solagaistuarengana jo dugu. Solagaistua *Getxo, Historia de sus gentes* liburuaren egilea da, eta urte luzetan egindako ikerketen ondorioz, hiriaren historiaren ezagupide handia dauka.

“Nire ustez, *Getxok lau auzo dauzka*”, dio Solagaistua, “*Andra Mari, Algorta, Areta eta Neguri. Gainerakoak auzoen barruko auzoak izan daitezke, baina ez gehiago*”. Hortaz, Erromo Aretaren zati bat baino ez dela uste du gure berbakideak. Algortako mugei dagokienez, zera diosku: “*Neguri eta Algortaren arteko muga, hainbat agirik aditzera ematen dutenez, Basagoiti etorbidea eta Txomintxu aldapa elkartzen diren gunea da*”. San Inazio eliza, beraz, Algorta da, “*inoiz Negurikoa dela irakurri izan dudan arren*”.

Algorta eta Andra Mariren arteko



Algorta eta Neguriren arteko muga Basagoiti kalea eta Txomintxu aldapa elkartzen diren gunea ei da

mugak arazo handiagoak ematen ditu. Solagaistua Bidezabal kalea hartzen du mugatzat; dioenez, Sarrikobaso kale osoa Algorta da, eta hantxe hasten da Andra Mari. Aldapa eta Oicosa auzune berriak ere Algortakoak ei dira.

«Algorta eta Andra Mariren arteko mugak sortzen du eztabaida gehien»

Herritarren artean bildutako beste iritzi batzuek, ordea, Sarrikobaso eta Elorri kalearen arteko gurutzean kokatzen dute muga hori. Askoz gorago beraz. Bestalde, Aldapa eta Oicosa Andra Mari lirateke, bertako emakume batek esan digunaren arabera; horko baserrietako

jendearen hiletak Andra Marin egin izan dira historian zehar, Salbatzailearen elizaren ingurukoena bezalaxe. Eztabaida, zuen

ZEIN DA BENETAKO IZENA?

Zelan esan, Andra Mari ala Getxo? Ohituraz, auzo horretakoek getxoztar modura aurkezten duten beren burua, eta eskualdeko edonork, norbait “Getxokoa dela” adituta, auzo jakin horretako dela ulertzen du. Askotan, hala ere, bereizketa beharrezkoa da, eta horregatik “Andra Mariko” esaten da. Izen horrek ofizialtasun kutsu handiago dauka egia esan, eta ofizialtasuna aipatu dugunez, ezin dugu gogora ekarri barik utzi Euskaltzaindiak auzo horretarako ematen duen izena: ez Getxo eta ez Andra Mari, Elexalde baizik. Aukera faltan ez gaude behintzat.

Quad eta jet txapelketa Ereagako hondartzan hilaren 25ean



Modan dauden honelako ibilgailuak ikusi ahal izango ditugu Ereagan

Adrenalina eta zirrara elkartuko dira hilaren 25ean (zapatua) Ereagako hondartzan egingo den I. Quad eta Jet Txapelketan. Ekimen aitzindari honetan, 50 pilotuk jetak (uretako motorrak) eta quad-ak (lau gupil handi dituzten motorrak) gidatzeko zelako abilezia daukaten ikusteko aukera izango dugu.

Ekitaldia ibilgailu horietan aditua den aldzkari batek antolatu du, eta Espainiako, Frantziako eta Portugalgo gidaririk onenek jardungo dute; beraz, lasterketak nazioarteko maila izango du. Parte-hartzaileek bikoteka lehiatuko dute (guztira, 25 bikote egongo dira), eta batak eta besteak makina biak gidatu beharko dituzte

txandaka. Itsasoko ibilbideak milia bateko luzera edukiko du, eta hondartzaren aurrean izango da; quad-ek, berriz, hondar gainean jardungo dute, 870 metroko luzera eta 10 metroko zabalera daukan zirkuituan.

3.000 euro banatuko dituzte saritan, baina antolatzaileen ustetan, proba ikusgarri honen benetako pizgarria bilduko duen txapeldun multzoa izango da; gainera, Ereagako hondartzan motor biren erotea batuko da lehen aldiz. Espainiako jet txapelketan nagusitu den Iñigo Martinez pilotuak parte hartuko du, quad-ean oso trebea den Javier Otaegi bizkaitarragaz bikotea osatuz. m

HIRITARREN ARRETARAKO BULEGO BERRIA ALGORTAN

Juan Bautista Zabala kalean eraikitzen dabilzan Hiritarren Arretarako Bulego berria azaroaren azken hamabostaldian zabalduko dute. Goizeko 8:00etatik arrastiko 14:00ak arte egongo da irekita, eta bertan algortarrek paper-kontu asko egin ahal izango dituzte: erroldatu, agiriak aurkeztu, eta zergen gaineko argibideak lortu; Udalaren eta udal erakundeen inguruko informazioa ere emango dute bulegoan, eta kekek, iradokizunak eta oharrak ipintzeko lekua egongo da. Aldi berean, horrelako beste bulego bat zabalduko da Udaletxean bertan. / Telefonoa: 94 466 03 66



KANDELU ERREKA ZIKINTZEN ZUEN KOLEKTOREA KONPONDU DUTE

Uribe Kostako Korredorearen lanak zirela eta, Kandelu errearen ondokik doan kolektorearen hodi bat apurtu zen duela sei urte. Ordutik, hodi hartatik irteten ziren hondakinak zuzenean joan dira errekarera. Orain dela urtebete, inguruko bizilagunak protesta egiten hasi ziren; istripuaren ondorioz, Kandeluko ura soloak ureztatzeko erabiltzeari utzi behar izan zioten. Gainera, kiratsa eta hainbat piztia kaltegarri jasan behar izan dituzte. Azkenik, Udaletxeak konpondu egin du arazoa, baina, adierazi duenez, lanen ondorioz sortutako gastuen fakturak Bizkaiko Aldundiari igorriko dizkio.

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Funikularrak

M^a Kristina plaza eta Ereagako hondartza **lotuko** ditu

M^a Kristina plaza eta Ereagako hondartza lotzeko hainbat aukera aztertu ostean (funikularra eta igogailua horien artean), udal teknikariek funikular bat eraikitzea seguruagoa eta merkeagoa dela ziurtatu dute txosten batean; gainera, ingurumenaren gain eragin txikiagoa daukela.

Beraz, igogailua ipintzea erabat baztertua geratu da. Antza, horrek pasabide handi bat eta maldan tunel bi eraikitzea eskatzen zuen, eta ondorioz, areagotu egingo zen maldaren ezegonkortasuna. Edozer egiten dela ere, gune horretan oinarritze eta finkatze lanak egin beharko dira nahitaez.

Funikularra M^a Kristina plazako goialdean hasi eta Ereagako La Ola jatetxearen ingurura heltzea da asmoa. Guztira, 1.250.000 euro inguruko aurrekontua edukiko du lan horrek, eta irailaren 26an egin zen udal Osoko Bilkuran onartu zen. ^m

Funikularra eraikiko den ingurua



Eneko Van Horenbeke >

Arraunlaria eta Mister Bizkaia 2003

“Ez dut uste Bizkaiko mutilik ederrena naizenik”



Argazkian, Eneko Van Horenbeke

Uztailaren 29tik Bizkaiko gizonik ederrena da ofizialki. 24 urte, 81 kilo, 1'87 metro, ezti koloreko begiak eta gaztaina-koloreko ilea. Horrelakoa da Getxoko baserri batean bizi den arraunlari sinpatiko hau. Urtea amaitu aurretik egingo den Mister España txapelketan parte hartuko du Enekok.

—Gorputz-heziketan diplomadun zara, baina arraunketa duzu bizibide. Noiz hasi zinen horretan?

—14 urteaz hasi nintzen Plentziako *Arkote*-n; hor bederatzi denboraldi eman nituen, eta orain urte bi daroadaz Kastroko *La Marinera*-n, Jose Luis Korta “bihozgabearen” agindupean. Mister Bizkaia txapelketa irabazi nuenean, denek esaten zidaten txantxetan: “*Hain itsusia izanda... Datorren urtean ni ere aurkeztuko naiz!*”.

—Eta nork bultzatu zintuen parte hartzera?
—Koadrillako neskek beti esaten zidaten “mutil katxarroa” naizela, aurkeztu behar nintzela, ziur irabaziko nuela... Tira, konbentzitu ninduten, eta ondo pasatzeko asmoagaz joan nintzen, beste barik. Eta azkenean, garaila; nire izena esan zutenean, arre-

bari begiratu nion eta ez nuen sinesten!

—Mutilik ederrena zarela uste duzu?

—Inola ere ez! Gainera uste dut txapelketa mota hauetara joaten diren guztiak ez direla galantenak; modeloak ez diren neska eta mutil eder asko kalean ikus ditzakezu egunero.

—Zer ezaugarri nabarmenduko zenituzke zeure gorputzetik eta nortasunetik?

—Alde batetik, abdominalak; arraunlaria izanik, nahiko gogorrak ditut egia esanda. Eta bestetik, oso gizartekoia, alaia, zintzoa eta nire lagunena lagun ona naizela.

—Elkarrizketa batean esan zenuen orain itsusiagoa ikusten zenuela zeure burua, ispiluan gehiago begiratzen zenuelako. Egia al da hori?

—Ni ez naiz sekula pinpirina izan, ez nintzen orrazten, eskura neukan lehenengo gauza janzten nuen... Baina orain jendeak arreta gehiago ipintzen du zuga, eta itxuroroso egon behar duzu, gehiago zaindu... Beraz, egunero egoten zara ispilura begiratzen eta lehen baino akats gehiago ikusten dituzu: begizulo hau, zimur hori...

—Zure bizitzan bide berri bat ireki zaizu. Zer egin gura duzu?

«Telebistan lan egitea eta aukerak aprobeztatzea gustatuko litzaidake»

—Ez daukat garbi zer egingo dudan, ez dakidalako modaren mundua zelakoa den. Hala ere, telebistan lan egitea gustatuko litzaidake; beti izan dut jakingura eta asko gustatu izan zait. Horrelako txapelketak irabazteak ateak zabaltzen ei dizkizu, baina gero balio behar duzu, bestela kalera zoaz. Sor daitezkeen aukerak ondo erabiltzea gustatuko litzaidake, eta ondo ateratzen ez badira, ba arraun egitera, orain arte bezala. ^m



Antzerkia ikasgeletara

Antzerki eskolen 22. ikasturtea hasi da

Duela 23 urte sortu zen GUABE (Getxoko Ume-Antzerkia Bultzatzeko Elkarte), eta handik gutxira antzerki-animazio eskolak emoten hasi zen Getxoko ikastetxe publikoetan. Urriaren 1ean hasi zen ikasturteagaz, dagoeneko 22 bete dituzte ekimen hau aurrera errotan, elkarteak idazkari Antoine Basterok esan digunez.

Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailak eta DBHko 1. eta 2.a hartzen dituzten eskola hauek ez daukate zer ikusirik, Basterok dioenez, “*betidaniko ikastetxeetako antzerkiagaz, hau da, amak josi, aita antzelana ikustera joan eta ira-*

kasleak antzezlekua apaintzen zuen antzerki horregaz”. GUABEren eskoletan umeek dena egiten ikasten dute, eta antzezlanak “*modu demokratikoan prestatzen dira, urtean zehar hainbat bozketa egin behar izaten dira-eta*”. Gidoia bera ere umeek eurek egiten dute, eskolan sortzen diren ideiakaz.

700 ikaslerentzako lekua daukate, baina jaiotzen beharadadak ikasleak lapurtzen dizkie urtero: “*Ea aurten 600-era ailegatzeko garen*”. Ikasturte amaieran, eskoletan parte hartzen duten 30etik gora taldeek euren lanak aurkeztuko dituzte Getxo Antzokian. ^m

GETXOKO EGUNKARIAREN ALDEKO BATZORDEAK 62.050 EURO BILDU DITU BERRIAREN ALDE

Euskaldunon Egunkariaren alde lan egiteko sortu zen batzordea, hura itxi zutenean, baina jakina denez ez zen aukerarik egon Egunkaria atzera irekitzeko, eta azkenik, batzordeak Berriaren alde jarduteari ekin zion. Egunkari horren akzioak saltzea izan du eginkizun nagusietako bat; oraingoz, 62.050 euro lortu dituzte. Batzordeko kide batek azaldu digunez, horrek esan gura du betea dutela hasierako helburuaren %83: “Biztanle eta euskaldun kopuruaren arabera ezarritako irizpideen arabera, 75.165 euro lortu behar dira Getxon, eta beraz 13.115 falta zaizkigu”. Kopuru hori lortzea izango da batzordearen erronka hemendik abendura bitartean. Gura duenak akzio mota bi dauzka eskuragai, 50 eta 300 eurokoak.

XIII. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK HERRIAN BASOZALEAK-EN ESKUTIK

Basozaleak elkarteak XIII. Jardunaldi Mikologikoak daukaz hil honetan. Urriaren 20an, elkarteak kideek eurek jan daitezkeen eta pozointsuak diren perretxikoen gaineko berbaldia emango dute, eta 22an, “Sección Luridi-Familia Boletaceae (hongos de poros rojos)” izenburuko hitzaldia eskainiko du Eduardo Fidalgok. Hitzaldien ostean, txangoa: urriaren 25ean (zapatua) Altube eta Murgia aldera joateko aukera edukiko du gura duenak; horretarako Basozaleak-en egoitzan (Itsasgane Etxea, Karitatea kalea, 1) eman behar da izena, edo 667-07 51 75 telefonora deitu, urriaren 22a baino lehen. Irteera goizeko 8:00etan izango da, eta itzulera 14:00etan gutxi gorabehera. Bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 10. Hitzaldiak, bestalde, Itsasgane Etxean izango dira, 19:30ean.

XXIII. ASTE KORALA, URRIAREN 28TIK 31RA

Getxoko Kultur Etxeak XXIII. Aste Korala antolatuko du urriaren 28, 29, 30 eta 31n. Kultur arloan Getxon egiten diren ekitaldietan zaharretakoa den honek nazioarteko hainbat abesbatza ekarriko dituzte gure artera. Getxo Antzokian egongo da horietaz gozatzeko aukera, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Sartzeko, arratsaldia hartu beharko da urriaren 20tik aurrera, Kultur Etxean. Aurtengo Aste Korala Japoniatik etorritako Ensemble Juri taldeagaz hasiko da; hurrengo egunean, urriaren 29an (eguztina) hain zuzen, Errusiako Krasnoyarsk City Children's Choir izango da kantari Getxo Antzokian; hirugarren eta laugarren jardunaldiak, berriz, Esloveniako Ipavska eta Getxoko Irutasun abesbatzaren esku izango dira, hurrenez hurren.



Biotz-Alaik iaz jaialdian parte hartu zuen

KURKUDI LIBURU DENA

Euskarazko irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

Bulegoak

han eta hemen

Beheko irudian ikus dezakezuen, eraikin handi bi egiten dabilta Artatzan, Gobela eraikinaren ondo-ondoan. Bulegoak egongo dira bertan, eta aurrez ezarritako epeak ondo betetzen badira, lanak abenduaren 18rako amaituko direlakoan dagoz. Iturri onek adierazi digutenez, ordea, ezingo da epe hori bete. Bestalde, eraikinetako beharginek esan digutenez, bulego-eraikinak amaiatuta koan hotel handi bat egingo dute bertan, ospe handiko konpainia batena gainera. Ikusiko da zurrumurruek egia bihurtzen diren ala ez.

Herriaren beste alde batean ere bulegoak egingo dituzte, Udaletxeak esan duenez. Luxuzko bulegoak izango dira, gainera. Hain zuzen, ospital zaharra dagoen lur-eremuan eraikiko dituzte, baina oraindik ez da zehaztu noiz hasiko diren horretarako lanak. ^m

Abendurako amaitu gura dituzte lanak



Euskara dendara

Merkatari proiektuak Leioako merkataritzan euskara bultzatzea dauka helburu

Honezker amaituta dago leioaztarrek erosketak egitean agertzen dituzten hizkuntza-ohiturak ezagutzeko irailaren 29an hasitako inkesta. Josu Esnaola Leioako euskara teknikariak UKri azaldu dionez, "ekimen hau 'Merkatari' proiektuaren barruan dago, herriko merkataritzan euskararen erabilera bultzatzeko proiektua alegia". Esnaolak dioskunez, merkataritza garrantzi handiko sektorea da Leioan, Udaletxearen iritziz, eta euskara suspertzeko edozein egitasmok hori hartu behar du kontuan.

Amaitu berri den inkestak herritar xeheak eduki ditu helburu. Erosketetara joatean

erabiltzen den lehen hizkuntza zein den jakitea da asmo nagusia. Horrez gain, euskarak merkataritzan duen lekuari garrantzia ematen ote zaion jakin gura da. Horretarako, 400en bat galdeketa egingo dira guztira.

Esnaolak dioenez, "hau proiektuaren lehen zatia da". Ondoren, "informazio-erri bat aterako dugu, dendariei euskararen alorrean eskaintzen dizkiegun zerbitzuak zeintzuk diren zebazten duena: itzulpenak, errotoak euskaratzea eta abar". Geroago, plan berezia gauzatuko da aukeratutako hainbat dendagaz, "bezeroen arreta ez ezik, barruko jardueren ere euskalduntzeko: fakturak, albaranak...". ^m

David Merino > Kalamundua grow shop-eko ugazaba

Grow shopen hazia

David Merino 30 urteko leioaztarra benetak aitzindaria dugu grow shopen eremuan, berak ireki zuen eta, duela bost urte, mota horretako lehenengo denda Euskal Herrian. Kalamundua dauka izena, eta Bilboko Somera kalean dago.

Dakizuen, grow shopak kanabis haziak saltzen dituzten dendak dira. Dagoeneko ohiko kontua direla esan daiteke (Uribe Kostan, esaterako, bi daude), baina duela bost urte egoera desberdina zen, Merinok gogoratzen duenez: "Hasieran ez genekien zer ondorio ekarriko zigun honelako denda bat irekitzeak, ez geundelako ziur egiten genuen guztia legearen barrukoa zen ala ez". Mundutxo honetan dagoen arazo handienetako bat, hain zuzen, arlo batzuetarako legedia argi baten eza da.

Hala ere, jendearen harrera lehenengo egunetik oso ona izan zela diosku Merinok. Gaur egun, bezero finko mordotxoak dauka Kalamundua, grow shop guztiek bezala. "Beste asko, aldiz, jakinmin hutsak eraginda sartzen dira".



Argazkian, David Merino

Haziak ez eze, marihuanagaz zer ikusia daukaten produktu ugari topa daiteke grow shopetan: erretzeko pipak, kamisetak... "Orain, gehien saltzen den gauzetako bat barnean landarea hazteko lanpara berezia da", argitu digu Merinok. Gaur egun, dendaz gain, hazi-biltegi bat dauka leioaztar honek, eta berak saltzen dizkie haziak inguruko grow shop askori. ^m

SAGARRABARRENA, ISILTASUN BILA

Leioako Udaletxeak akordioa lortu du Bizkaiko Foru Aldundiagaz, Sagarrabarrenako parkea eta inguruko etxeak zaratarengandik babesteko dituen hesi bat ipintzeko. Gaur egun, La Avanzada delakotik eta Uribe Kostako Korredoretik igarotzen diren autoen burrunba eskerga jasan behar du inguru horrek, baina arazoa abendurako egongo da konponduta, udal agintariak iragarri dutenaren arabera.



KONTSUMOBUSA, 20AN ETA 21EAN LEIOAN

Erandiotik eta Getxotik igaro ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Kontsumobusa Leioan egongo da hilaen 20 eta 21 ean. Ekimen honen helburua hiritar guztiak, ume zein heldu, kontsumitzaileak lez dauzkaten eskubiak berri ematea da.

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

BEROGAILU ETA ITUR-

T: 430 53
HIRURAK

Sarrikobaso 15



amesti 7sl

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

etorri eta ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

ERROTULOAK



Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Ibon Urrutikoetxea > kiroldegiko soroslea

“Ez dut inoiz inor uretatik atera behar izan”



Argazkian, Ibon Urrutikoetxea

Ibonek 8 urte daroaz Erandioko kiroldegiko igerilekuan begirale eta sorosle lanetan, igeriketa ikastaroak ematen. Bera da Erandioko Igeriketa Eskolaren bultzatzaile nagusia. Baina horretan hasi aurretik, telekomunikazioetako elektronikari ikasketak egin zituen, tabernari izan zen eta gizonezko gutxiak duen beste ofizio batean ere trebatu zen: inoren etxeko lanak egiten. Orain, Udalak sortu berri duen Euskararen Aholku Batzordeko kide izendatu dute.

—Zelan hasi zinen sorosle lanetan?

—Ikasketak amaitu eta lantegi batetik bestera ibili nintzen neure espezialitateko lanaren bila. Prest negoen dohainik ere lan egiteko, horrela esperientzia hartu ahal izango nuelakoan, baina ez zegoen modurik. Orduan etxeak garbitzen hasi nintzen eta horretan nengoela sortu zitzaidan honetarako aukera. Sorosle ikastaroa egin nuen, eta euskara nekienez, kontratatu egin ninduen kiroldegiaren ardura zuen enpresak.

—Zer da Erandioko Igeriketa Eskola?

—Igeriketa eskolan 5 urtetik 14 urtera bitarteko neska-mutilak ditugu, eta astean 3 egunez entrenatzen dira. Zortzi urtetik gorakoek, nahi badute, konpetizioan aritzeko aukera dute, eta asteburuetan Fadura, Ondarroara, Galdakaora, Markinara, Artxandara edo Barakaldora joaten gara beste batzuekin neurtzera. Lehia horiek pizgarri dira hobetzen ahalegintzeko eta igerian jarraitzeko.

—Badirudi gustora zabiltzala lanean.

—Bai, jakina. Gure lanean ikusi egiten dituzu emaitzak. Hasieran uretara sartzeko beldurrez ikusi duzun jendea gero bere kontura igerian lasai ikusten duzu eta pozgarria da.

—Holako lekuetan izango da kontatzeko moduko gertakari xeberren bat.

—Bai, bada sekula ahaztuko ez dudan pasadizo bat. Behin, hirugarren adineko talde bat etorri zen goizez kiroldegira.

Guztiak zekiten uretara sartzeko ezinbestekoa zela txanoa janztea, eta han etorri ziren guztiak ondo prestatuta, dutxako txanoak jantzita. Baina batek harrিতuta utzi gintuen inguruan ginen guztiok. Berak peluka zeraman soinean eta igerilekura sartu bezain pronto peluka kendu eta iruntzietara jantzi zuen, ilea barrualdean eta kanpotik goma zuela. Ezin izan genion barreari eutsi, baina ez genion ezer esan. Horrela sartu zen.

«Igeriketa kenduta, gainerako kirol eskoletan gaztelania baino ez da erabiltzen»

—Euskararen Aholku Batzordeko kide zara. Zertan da euskara Erandioko kiroldegietan?

—Guk umeentzako igeriketa eskolak euskaraz ematen ditugu, begiralerik gehienak euskaldunak garelako, baina beste kirol guztietan gaztelania besterik ez dute erabiltzen, umeak euskaldunak izan arren. Atletismo eskolan, saskibaloian, gimnasia erritmikoan... begirale eta entrenatzaile erdaldunak ari dira. Gainera jendea harrera egiteko langileetan ere, batzuk enpresak kontratatuak dira eta ez dakite euskaraz. Udalak, enpresa kontratatuzko baldintzetan, langileetatik %60 euskalduna izatea eskatzen du, baina ez da betetzen. m

Lutxana Bizkaiko onenen artean Federazio Ligan lehenengo bizkaitar kluba izan da



Aurtengo denboraldian traineru urdinaren gizonek aurrera-pauso handia egin dute

Joandako udan Kantauri Itsasoko estropadetan Astillero izan da nagusi. Ez Bizkaiko traineruek ez Gipuzkoakoek ezin izan dute ezertxo ere egin traineru kantabriarraren indar eta kemenaren aurrean. Alabaina, ez dago esaterik uda eta, berarekin batera, arraun denboraldia eskasa izan direnik euskal talde guztientzat, Lutxana Arraun Elkarteko gizonek ezusteko ederra eman dute eta.

Udaz uda, lar ohituta zegoen traineru urdina azken postuetara. Bizkaiko traineruen arteko berezko lehian ere kostata egiten zuen dir-dir. Aurtengo denboraldian, berriz, itzelezko aurrera-pausoa egin du, Traineruen Federazio

Ligan lehenengo bizkaitar kluba (laugarren, sailkapen nagusian) izatea lortuta. “Iaz hasi genuen lanaren saria da arrakasta hau”, azaldu du Fernando Recio, Lutxanako arraunlari ohi eta gaur egun zuzendaritzako kide denak.


Erandioko Ikurriña irabazteaz gain, bigarren inoiz baino gehiagotan sailkatu da Lutxana Traineruen Federazio Ligako estropadetan. Etorkizunari begira, 2005 urtean bere eskura dagoen guztia egingo du Lutxanak goi mailako traineruekin lehian sartzearren, Traineru Kluben Elkarteko Ligan (TKE), hain zuzen. Horrelaxe ospatu gura du 75. urteurrena, 2005eko udan. m

BERRIA AURRERA

Astrabuduako gazte talde batek jaietan txosna jarri eta 4.785 euro eskuratu ditu *Berria* egunkariarentzat. Lortutako diruarekin *Berria* egunkariak saltzen dituen akzioak erosiko dituzte eta, honela, egunkariak beharrezkoa duen diruaren %96a jadanik lortua izango du.

Lan mardularen ostean, gazte talde honek ospakizun bat merezi zuen eta irailaren 26an askaltzeko geratu ziren. Jan eta gero kantapoteoa egin zuten Astrabuduako tabernetatik, Roberto eta Kepa trikitilariekin, giro ezin hobean.

Berriak ez du oraindik lortu, egunkariak aurrera jarraitzeko beharrezkoa duen diru guztia, baina espero da urtea amaitu baino lehen, zenbait ekintza eginez eta herritarren laguntzaren bidez, orain arte izan den bezala, falta den dirua lortzea.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, arnairuak neurria.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Uso erraldoia Estatua berri bat paratuko dute

2004ko apiriletik urrira arte Bilboko zenbait kaletan uso erraldoiak egongo dira ikusgai, bakeagaz eta tolerantziagaz zerikusia daukan ekimen baten barruan; horrelako erakusketa bitxia egin zuten duela hiru urte ere, hiriaren 700. mendeurrena zela-eta, baina orduan behiak izan ziren protagonista. Zelangura, Sopelako Udala horietako uso baten jabe egin da dagoeneko, eta urriaren bigarren hamabostaldi honetan Udaletxearen sarreran paratuko dute.

2.000 euroren truke erosi duten usoak 1,75 x 1,30 metroko neurria dauka, beira-zuntzekoa da, eta ez dauka inongo apaingarririk; izan ere, datozen asteotan bere "habiara" hurbiltzen diren sopoloztarrek euren proposamenak egin ahal izango dituzte usoa dotoretzeko. Ideiarik originalena edo politena gauzatu dute ekimenaren arduradunek, abenduan-edo Bilbora eramateko. Aipatutako erakusketan ikusgai egon ostean, usoa Sopelara itzuliko da zehazte dagoen behin-betiko leku batera. m

**«Sopeloztarrek
proposamenak egin ahal
izango dituzte usoa
apaintzeko»**

Kultur ekitaldi gitxi Ikasturte honetan Kultur Etxearen jar- duera murriztu egin dute nabarmen

Azken lau zapabost urteotan Sopelako Kultur Etxearen kudeaketaz arduratu izan den Zuzenki izeneko enpresak utzi egin du betebeharrak hori; lehen ondorio nabaria herriko kultur eskaintza asko ahuldu dela da. Zehazki zer gertatu den jakiteko udal iturrietara joan gara, eta hiru arrazoi egon direla azaldu digute: alde batetik, erabili izan diren lokalak ez ei dira aproposak, ez daude-eta behar bezala egokituta (esaterako, ez daude hoshgabetuta); bestetik, lokal batzuei beste erabilera bat emon zaie, behar berriak sortu direlako; eta azkenik, Zuzenki enpresari amaitu egin zaitzaion kultur etxea kudeatzeko kontratua.

Horren aurrean, eta kultur arloko zerbitzu guztiak ahalik eta modu onenean



Kultur etxea eraikin honetan dago

DATU BATZUK

- Sopelako Kultur Etxea Sabino Arana kalean dagoen lau solairuko eraikin batean dago; bertan pilotalekua, liburutegia eta areto nagusia ere badaude.
- Orain arte, erakusketak, hitzaldiak, zine-emanaldiak eta abar antolatzen ziren Kultur Etxean; umeentzako ludoteka ere bazeukan.
- Ikasturte honetarako lantegiak bakarrik antolatu dituzte, gai askotakoak: margolaritza, eskulanak, pianoa, gitarra, trikitixa, txistua, musika-hizkuntza, tai-txi...

emoteko helburuagaz, udal arduradunek ikusi zuten ezin zela kultur etxe osoa itxita eduki; beraz, erdiko konponbide bat bilatu zuten: partaide gehien izan ohi dituzten ekitaldiei (hau da, zenbait lantegi) eustea herriko elkarte biren bidez, eta gainontzekoak kentzea; elkarteok Itzartu eta Barinatxe txistulari taldea dira. Erabakiaren emaitza begi-bistan da: dagoeneko ez dira lehen beste jardura egiten Kultur Etxean. Zelangura, udal iturriek argi utzi dute egoera hau ez dela betirako, behin-behinekoa baizik, eta kantitatea aldatu dela kalitatea topatzeko. m

Urko Gaztañaga > Txakolin ekologiko egilea

Jatorrizko deituragaz

Hiru urte barru, lehenengo botilak



Urko Gaztañaga, bere mahatsondoan ortuan, Gaztañagako inguruetan

25 urteko sopoloztar honek Gaztañaga izeneko baserrigunean dauka 4.000 metro karratuko ortua, baina aurtongo udako sikatearen ondorioz, 1.500 metroan geratu zaio: "Urte txarra da orain arte, gauzak ez dira behar bezala aterati", aitortu digu Urkok; hektarea bat eta erdi batean dauka mahatsa landatuta.

Bizkaian lagun bik bakarrik dihardute gaur egun txakolin ekologikoa egiten: bata gazte hau, eta bestea Gordexolako nekazari bat; "beragaz batera, lehenetarikoa izan naiz".


Orain dela ia hiru urte bururatu zitzaion ideia, "txakolinak aukera gehiago ematen dituelako bizibidea ateratzeko". Eta zergatik ekologikoa? "Ohiko nekazari-

ritzan erabiltzen diren pestizidak ez nituelako erabili gura", erantzun digu Urko Gaztañagak. Behar egiteko moduak, beraz, aldatu egiten dira apur bat ekoizpen ekologikoan: belar-pozoia ezin daitezke bota, eta intsektizidek jatorri naturalekoak izan behar dute, esaterako. Erabiltzen duen mahats mota *bondarribi zuria* izeneko da. Antza, mahatsondoek bizpahiru urte behar dute fruitua emoten hasteko; horregatik, hiru urte barru ailegatuko zaizkigu Urkoren txakolin ekologikoaren lehen botilak: "Pentsatzen dot desberdintasuna egongo dala zaporean, personalidade gehiago eukiko dauela". Produktua esku artean eduki eta zelakoa den ikusi arte ez die izenik edo salneurririk ipiniko txakolin botilei. m

UDALETXEAREN ATONDOA ARRATSALDEZ ZABALIK

Astelehenerik barikura eta arrastiko 18:00etatik gaueko 21:00ak arte, Udaletxearen atondoa zabalik dago erakusketak, hitzaldiak eta aurkezpenak bertan egiteko. Herriko elkarten informazio-gune ere bihurtu da; hain zuzen. Sopelako institutuko ikasleek *Sopela: giza biderako uria* egistamoaren barruan egin zituzten argazkien erakusketak emon zion hasiera atondoaren eginkizun berriari; hilaren 17an amaitzen da. Ondoren, abenduaren 17ra arte luzatuko den doako mintegi bat hasiko da hor hilaren 22an, Europako margolari handien gainekoa: Caravaggio, Rubens eta Rembrandt.

GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixzarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

4 bide pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

MUGI FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis
x Esgintzeak
x Bizkarreko Erreuma x
mina Kiroleko lesio
ak x

Loitzun Izaola

Azkona

Fisioterapeuta, 459 kolegiatu zenbakia

Mendieta 2, SOPELA

617 67 45 36

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00

Domika eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

erakusketak
antzerkia
dj.ak
ALGORTA

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Urtebeteko ibilbidea

Osasun Etxe berriak denetariko iritziak sortarazi ditu **bere lehen urtean**, baina aldaketa hoberako izan dela diotenak dira nagusi

Joan den urriaren 4an lehen urtea bete zuen Berangoko Osasun Etxe berriak. Hori dela eta, leku aldaketak ekarri dituen ondorioez arakatu gura izan dugu, bertako arduradunakaz berba eginda alde batetik, eta Berangoko herritarrei itaunduta bestetik.

Iñaki González Goti da Sopela, Urduliz eta Berangoko osasun etxeetako arduradun nagusia. Berarengana jo dugu Berangoko Osasun Etxe berriak bere lehen urtean emandakoaz galdezka, eta zera erantzun digu: *"Leku aldaketak mesede egin die bai langileei bai gaixoei, lehengo lekua ez zegoelako behar bezala. Kontsultagelak goiko solairuan zeuden, ez zegoen igo-gailurik, eta askotan medikuek behera jaitsi behar zuten igotzeko zailtasunak zeuzkatenak egoteko. Orain, zorionez, ez da hala korrik gertatzen"*.

Egoitza berriari funtzionala deritza González Gotik: *"Nagusientzako eta elbarrituentzako oztoporik ez dago orain, bate-tik; bestetik, pediatria aldentuta dago beste zerbitzuetatik, ez lehen bezala"*. Osasun Etxearen eskaintza ez da handitu leku aldatzeaz geroztik: lehen bezala, hiru fami-



Osasun Etxe berriaren ez da hain luze itxaron behar

lia-mediku, hiru erizain, pediatra bat, klinika-laguntzaile bat eta emagin bat daude (azken hau egunero ez badago ere), baina leku gehiago dagoenez bakoitzak bere gela dauka orain, eta horrek ordutegia zabaltzeko aukera eman du.

Alde eta kontra

Itxaroten denbora gitxiago emoten dutela nabarmendu dute hainbat berangoztarrek,

UK-k Osasun Etxeaz galdetuta. Egoitza bera ere lehengo baino egokiagoa dela bat etorri dira guztiak. Baina badaude protestak. Eraikin berriaren kokalekua txarra dela uste dute askok, herritar gehienentzat urrunegi dagoelakoa, eta egoitzaren kanpoko itxura aproposena ete den ezbaian jartzen dute batzuek. Hainbat guraso, berriz, kexu dira pediatria zerbitzuaz: *"luzeegi itxaron behar da, eta gainera, harrera ez da oso txukuna"*. m

Etxea sari

Babes ofizialeko etxeak zozketatu dira Berangon

Garai batean, etxebizitzaren arazoa erraz konpontzen zen: seme nagusiak jasotzen zuen etxea, eta gainerako neba-arrebek ahal zuten moduan moldatu behar zuten. Etxea dohainik zeukan norberak, edo ez zeukan bat ere, ezkondu ezean behintzat. Gaur egun, zozketa bidez konpontzen dira etxebizitza lortzeko arazoak; maiora-goa aspaldi da joana, baina pisu arrunt baten prezioa ikusita, asko dira babes ofizialeko etxebizitzaren "pagotxa" egokituko zaien esperantzaz zozketarako izena ematen dutenak.

Gehinetan hutsala den esperantza horri loturikoen multzo handiko kide dira Eunate Sánchez berangoztarra eta Joseba Ugarte erandioztarra. Eurek zoria alde izan dute ordea, Berangon irailaren 29an zozketatu ziren etxebizitzetako bat egokitu zaie eta.

Orain, 85.000 euro inguru ordaindu beharko dute euren etxearen truke. Gutxi,



Eunate Sánchez eta Joseba Ugarte zorioneakoak

garai hauetan. Pozak, hala ere, ez die ahaztarazi zozketaren informazioa ez dutela modurik egokienean jaso: *"Egunkariaren bitartez izan genuen haren berri"*, dioskue, *"ohartarazpen ofiziala zozketa egin eta bi egunera jaso genuen eta"*. Momentuz, itxaron egin beharko dute etxeaz gozatzeko: dena ondo badoa, 2004ko amaieran amaituko dira lanak. m

POSTETXEKO BULEGOA IREKI DUTE ATZERA

Iazko maiatzean eraso baten ondorioz erre ostean, urriaren hasieran ireki zuten berriro ere Berangoko Posta eta Telegrafoetako bulegoa. Lehen bezala, astegunetan 9:00etatik 12:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara irekiko da. Sabino Arana kaleko 6. zenbakian dagoen bulegoa konpontzeko 39.000 euro erabili dira (sei milioi eta erdi pezeta inguru). Konponketa erabatekoa izan da, eta bulegoak sutearen aurretik zeukan itxura bera dauka, ez da berrikuntzarik, egin eta. Gogoratu beharrekoa da 2000. urtean ere erre zela bulego hau, Postako bozeroale batek adierazi digunez.

Berangoko Postako bulegoak era guztietako zerbitzuak eskaintzen die herritarrei.



Urriaren 1ean atzera zabaldu zen bulegoa

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

AENOR ER Empresa Registrada ER-1891/2001
AENOR GA Gestión Ambiental CGM-02/006

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

www.berria.info

Urriak 17 - Azaroak 1

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

[herriak]

PLENTZIA

Zanpantzarrak, Nafarroan bakarrik ez



Pentziako joaldunak, aurtengo Andra Mariko igoeran

Badira 13 urte-edo Plentziako zanpantzar taldea sortu zenetik, eta sorrera horren arrazoa Olentzerotan egiten den antzekizunean bilatu behar da, taldeko Iñigo Aspiunzak azaldu digunez: "Hasieratik, antzekizunaren barruan euskal mitologiako pertsonaiak berreskuratzeko ahalegina egin da (jentilak, sorginak...), eta zanpantzarragaz gauza bera egitea erabaki zen".

Ordura arte, Aspiunzak dioskunez, jatorrizko zanpantzar taldea etortzen zen Olentzerotan, Nafarroatik. Azkenean, ordea, taldea geuk eratzea bururatu eta Go-

tzon Pérez taldekidea joan zen hara, "joareak zelan lotu eta zelan jo ikastera". Plentziara itzulita, Pérezek gainerakoei irakatsi zien.

Gaur egun, hamabi laguneko taldea osatzeko moduan daude, "guztiok gutxitan elkartzen garen arren". Urtean hainbat bider jotzen dute, "deitzen digutenean". Euren kurrikulumeke gauzarik aipagarriena, beharbada, duela urte batzuk Gontzal Mendibilegaz batera ibili izana da, Zeanuriko abeslariak Euskal Herrian zehar eskaini zuen ikuskizun batean. m

Harremanetarako: 615 74 43 82

URIBE KOSTA

Ipuin lehiaketaren liburua

Uribe Kostako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak 3 eta 14 urte bitarteko umeen 39 ipuin biltzen dituen liburua argitaratu du. Bertan, erakunde horrek 1999an, 2000n eta 2001ean antolatu zituen ipuin lehiaketetan saritu ziren kontakizun guztiak irakur daitezke; irabazleak Lemoiz, Barrika, Urduliz, Sopela eta Berangokoak dira, besteak beste. *Uribe Kostako ipuin lehiaketa* liburua 5.000 ale kaleratu dira, eta oraindik lor daiteke, doan, Mankomunitatera hurbilduz gero (Sopelako Gatzarriñe kalea, 2-4), edo bertara deitu (94 676 26 74) eta Euskara Zerbitzuaz galdetuz gero. m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Bern

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA

jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

ANTZERKIA

GETXO

► **Mamutxak (euskeraz)**. Algortako Geltokiko plazan. Urriak 18, zapatua. 13:00. *Kukubiltxo* taldearen eskutik.

► **Muzikiren bidaia harrigarria**. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Urriak 18, zapatua. 13:00 (gaztelaniaz) eta 18:00 (euskeraz). Pok Produzioak taldearen eskutik.

► **Las mujeres de verdad tienen curvas (gaztelaniaz)**. Getxo Antzokian. Urriak 18, zapatua. 20:00. *Ados Teatro* taldearen eskutik.

► **Venus attack (euskeraz)**. Algortako Geltokiko plazan. Urriak 19, domeka. 13:00. *Sebastopoleko Titiriteroak* taldearen eskutik.

► **A, E, I, O, U**. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Urriak 19, domeka. 13:00 (gaztelaniaz) eta 18:00 (euskeraz). *Deabru Beltzak* taldearen eskutik.

► **Mi suicidio (gaztelaniaz)**. Getxo Antzokian. Urriak 19, domeka. 20:00. *Tantaka* taldearen eskutik.

► **Historias Terraterrestres**. Getxo Antzokian. Urriak 24, barikua. 20:00etan (euskeraz) eta 22:30ean (gaztelaniaz). *Tentazioa* taldearen eskutik.

► **Eskola eta festa (euskeraz)**. Algortako Geltokiko plazan. Urriak 25, zapatua. 13:00. *Poxpolo eta Mokolo eta Konpainia* taldearen eskutik.

► **Hitzak patriketan**. Andrés Isasi Musika Eskolan. Urriak 25, zapatua. 13:00etan (gaztelaniaz) eta 18:00etan (euskeraz). *Hankatxo* taldearen eskutik.

► **Sonámbulo (gaztelaniaz)**. Getxo Antzokian. Urriak 24, zapatua, 20:00. *Ur Teatro* taldearen eskutik.

► **Klaketa (euskeraz)**. Algortako Geltokiko plazan. Urriak 26, domeka. 13:00. *Hortzmuza* taldearen eskutik.

► **Kokoroko**. Andrés Isasi Musika Eskolan. Urriak 26, domeka. 13:00etan (gaztelaniaz) eta 18:00etan (euskeraz). *Ados Teatro* taldearen eskutik.

► **Dime que me quieres (gaztelaniaz)**. Getxo Antzokian. Urriak 26, domeka. 20:00. *Simulacro* taldearen eskutik.

ERAKUSKETAK

BERANGO

► **Patxi Bengoaren margolanak eta eskulturak**. Erakusketa aretoan. Urriaren 20tik 31ra.

ERANDIO

► **Arte kubarra**. Josu Murueta kul-



Atxazpe Mendi Taldeko kideak, jardunaldien antolatzaileak

► HITZALDIA

Edurne Pasaban eskalatazalea, Erandion

Edurne Pasaban eskalatazale gipuzkoarrak hitzaldia eskainiko du Erandioko Mendiaren eta Mikologiaren astearen barruan. Atxazpe Mendi Taldeak antolatu du kultur aste hau, eta dagoeneko egiten duten hamabigarren aldia da. Urriaren 20tik 26ra iraungo du Mendiaren eta Mikologiaren Asteak eta 24an izango da Pasabaren berbaldia. Gaia Himalaiako Makalu mendi ezagunera egindako bidaia izango da.

Non: Erandioko Josu Murueta Kultur Etxean • **Noiz:** Urriak 24 (barikua) • **Ordua:** 20:00etan

turguneko erakusketa gelan. Urriaren 27tik azaroaren 1era.

GETXO

► **Santiago Labeaga**. Algortako erakustaretoan. Urriaren 21etik 31ra.

► **Romo Futbol Taldearen 25. urteurrena**. Erromoko erakustaretoan. Urriaren 31tik azaroaren 13ra.

IRTEERAK

PLENTZIA

► **Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia**. Azaroak 1, zapatua. Izen ematea Goñi Portalen (94 677 55 41), urriaren 20ra arte.

LEHIAKETAK

LEIOA

► **X. bideo lehiaketa**. Gaia askea izango da, eta lanak argitaratu gabeak eta inongo lehiaketatan saritu gabeak izan beharko dira. VHS euskarrian emango dira, eta gutxienez 4 minutu eta gehienez 11 irau beharko

metroko lodierakoa). Emateko epea azaroaren 14an amaituko da, 14:00etan. Emateko lekua: Leioako Kultur Aretoa, Sabino Arana 67, behe. Sari banaketa, abenduaren 20an, Sakonetako Kultur Etxearen Erakusketa gelan, 12:00etan. Informazio gehiago eskuratzeko: www.kulturleioa.com

MUSIKA

BARRIKA

► **Basin Street Cafe**. *Golfo Norte* tabernan. Urriak 25, zapatua. 23:00.
► **Canal Blues**. *Golfo Norte* tabernan. Azaroak 1, zapatua. 23:00.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Al sur de Granada**. Goñi Portalen. Urriak 24, barikua. 22:00.
► **La vida mancha**. Goñi Portalen. Urriak 31, barikua. 22:00.

BESTERIK

ERANDIO

► **"Iturrian zer dago?" ikuskizuna**. Antzerkia, dantza, bertsolaritza eta trikitixa uztertzen dituen lana, *Xukan* taldearen eskutik. Bekoa ikastetxean. Urriak 30, eguna. 20:00. Sarreren gaineko informazioa Udaletxeko Kultur Sailean.

GETXO

► **"Sorginkerik" ipuin kontakizuna**. Erromoko Kultur Etxean. Urriak 28, martitzena. 20:00.

GORLIZ

► **II. Perretxiko Jardunaldia**. Iberre auzoan. Urriak 19, domeka. Goizez.
► **Hegoamerikako ipuin kontalariak**. Udal erakusgelan. Urriak 24, barikua. 20:30. Gaztelaniaz eta helduentzat.

hamaika bide


1	Kafe Antzokia Bilbo
2	Kafe Antzokia Ondarroa
3	Ondarroako Arrigorri itsas ostata
4	Algara konpartsa
5	Zaparrada Gaztegunea
6	Oigetan Umegunea
7	Eikartean zerbiztu, ikastaro eta tailerrak
8	Bakaikuko elxea
9	Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
10	Zenbat Gara aldizkaria
11	Gara argitaletxea

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91

zenbat gara elkarte

hamaika aukera

[albuma]



Mezu emale bat-batekoak
Komiki eta filmetan, euren lana burutu ostean bost segundotan "autosuntsitzen" diren mezuak ikusten ohituta gaude. Horien antzera dabilta irudiotan jaso ditugun pegatina kaletar hauek ere: ez dute luzeegi irauten, baina euren bizitza laburrak dirauen bitartean mezu bat –potoloa batzuetan, arinagoa bestetan– emateko gauza dira behintzat, atzazal anker batek, bazterretik hasi eta bihotzeraino, urratu arte.

Argazkiak: Jokin Aspuru



[berbetan]

Hegoaldea ondo ezagutzen duen lapurtarra dugu Anje Duhalde. Gaztetatik musikari eta kantari, euskara lehen aldiz rockaren bidean jarri zuen Errobi talde mitikoaren sortzailea izan zen Mixel Ducau-rekin batera. Ondoren, Akelarre taldetik igaro ostean, bakarkako ibilbideari ekin zion eta 9 diskoko sorta ederra eman digu orain artean, azkena Brassens Kantari izeneko. Arrangoitzeko musikariarekin izan gara beraz, musika, zentsura eta Iparraldea ditugula mintzagai.

Anje Duhalde

Errobiaren bidetik

Testua: **Jabi Zabala** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Nola hasi zinen euskal musikaren munduan?

—Musikaren bidez, 16 urterekin berreskuratu nuen euskara, Mixel Labegerie-ren kantu batzuk entzuten. *Ez Dok Amairu* hasten zen orduan... Baina orduan euskara ez zen nire kezka, Rolling Stones baizik.

—Euskararekiko harremana nolakoa zen orduan?

—Ustaritzen hazi nintzen, Lapurdiko hiriburu kulturallean. Sei urte arte euskaraz egin nuen. Garai hartan frantses hezkuntza ministerioak erabaki zuen hizkuntza politika gogorra egitea, konturatu baiziren frantziar gehienek ez zutela frantsesa egiten. Guri gogorrera tokatu zitzaigun, kultura ezabatzea. Euskaraz egitea debekatzeko ziguten, zigortuak ginen. Gure herrian medikuaren semeak bakarrik egiten zuen frantsesez, baina Baionara joaten ginenean arraza bereziko bezalakoak ginen, mespretxuz tratatzen gintuzten. Batzuk ziren gaskoinak eta gu ginen baskorroak. Zortzi urterekin jada frantsesez egiten nuen. Aitarekin beti euskaraz, baina ama oso gogor jarri zen horrekin, frantsesez egin behar genuela. Frantsestu gintuzten, hizkeraz eta izaeraz.

—Hegoaldea zer zen zuentzat orduan?

—Horiek espainolak ziren guretzat. Hegoaldearekiko lehenengo kontaktua 68an izan nuen, Debako Arte Eskolako batzuk ezagutu nituen, Daniel Landart-en bidez,

orduan Enbatan sartu bainintzen. Gero Burgosko auzia izan zen eta politika arloan harremanak sakondu ziren. Benito Uztaritzen ikusi nuen eta gogoan dut harritu nintzela, Donovan-en bertsio bat egin zuelako.

—Nolakoa izan zen Errobiren sorrera?

—Ni *El Fuego* izeneko berbena taldean nengoen 66tik, bateria jotzen. Orduan talde guztiek izen espainolak zituzten, Los Amigos eta horrelakoak. Euskarazko abestiak sartzen hasi ginen 68an, baina soldaduskatik bueltan erabaki nuen euskarazko taldea egin behar genuela. Landartek bazuen kantu bat, *Zure begiek*, Mikel Laboak kantatu zuena... Hiruzpatalau kantu nituen jada, 1973an, Mixel Ducau ezagutu nuenean.

“Zentsura ez da egongo bakarrik artean edo komunibideetan, arlo guztietara zabalduko da”

—Lehenengo euskal rock taldea izan ez zen Errobi...

—Hori diote baina ez da oso inportantea niretzat. Lehendik euskarazko rock kantu batzuk baziren, lehenengoa Egan-ek atera omen zuen, baina formalki talde gisa bai, lehenengoa Errobi izan zen. Hasieran bikote gisa funtzionatzen genuen. Beste armonia eta ahots batzuk ekarri genituen eta hori izan zen aldaketaren adierazgarri.

Orduan Lete, Benito, Laboa eta horrelakoak zeuden.

—Kostatu zitzaizun Errobiren itzaletik aldentzea?

—Bai, 80an bakarkako lehen diskoa oso folkie-a izan zen, hortik aldentu nahian. Hala ere, Errobiko kantari moduan identifikatzen ninduten oraindik. Nolabait bizi behar nuela eta, Akelarre taldearen eskaintza hartu eta hiru-lau urtez ibili ginen Euskal Herri osotik. Erromeriaren aldaketan eragin handia izan genuen, baina nik bide hori agortua ikusi nuen eta beste bat hartzea erabaki nuen.

—Zure bakarkako diskoetatik zein duzu maiteen?

—Zaila da esaten. Agian esango nizuke bakoitzetik zer dudan maiteago. Baina

aukeratuz gero Bakezaleak eta Zuzenean hartuko nituzke. Nire irudirik benetakoena ematen baitute. Azkena, Brassens kantari, haren kantekin beti egin nahi izan dudana gauza bat da. Oso ondo hartu dute frantsesek ere, Frantzia osotik mezuak jaso baititut eskerrak emanez.

—Iparraldea nola ikusten duzu euskal musikaren egoera?

—Galdera hori beti egiten didate, sonde-



oak egiteko aparailua banintz bezala. Lapurdikoa naiz baina euskalduna naiz, besterik gabe. Nik uste, krisia dago, baina alde guztietan, ez bakarrik Iparraldean, euskaldun guztiongan baizik. Horrek ondorioak dakartza, baina badago, hala ere, lan egiteko gogoia duen jenderik.

—Kontraste harrigarria da, esaterako, Garazin hardcore elkarte bat egotea.

—Azken bost-sei urteotan oso talde gogorrek agertu dira, baina beti da hegoaldean gertatzen den fenomenoaren kopia bat. Gure garaian gazteak hegoaldeko iparraldera begira zeuden eta orain Hegoaldeari begira daude Iparraldeko euskaldunak. Izan dira itxaropen handia sortu didaten musikari batzuk, baina azken finean betikoak gaude: Erramun, Niko eta beste batzuk.

—Nola ikusten duzu frantsesak erakartzeko ahalegina, Arrosako jaialdia kasu?

—Arrosakoa nazioartean oso ondo har-

tua da, baina nik galdera egiten dizut: nola euskaldundu hego euskal herria? Hogeitau urte pasatu dira, hizkuntza politika bat izan da, eta emaitzak oso kaxkarrak izan dira. Iparraldean, hizkuntza ofizialki onartua ez den bitartean, zuloak estaltzen ibiliko gara. Seaska lan sakona egiten ari da, noiz arte ez dakigu... Funtssezko arazoa da ez garela herri bat, eta gure burua benetan komunitate moduan ikusten ez dugun bitartean ez dugu aurrera egingo.

—Hegoaldeko nola jokatu beharko genuke Iparraldearekiko?

—Begira, Iparraldeko gizartea nolakoa den jakin behar da. Aldea irudikatzen joan hadi Hendaiara, handik hartu Hondarribirako txalupa poteoaren orduan eta konturatuko haiz bi kilometroko tartean zein ezberdinak diren alde biotako gizarteak. Hori hasteko. Gizartearen harremanak... Dena da ezberdina. Kostaldearen

eta barnealdearen artean ere diferentzia handia dago. Beti izan da eta dramatikoak bihurtzen ari da azken urte hauetan. Zuberoa Pauera begira dago, administratiboki eta denerako. Diferentziak izan dira beti, Nafarroan Ipar Nafarroaren eta Erriberaren artean bezala.

—Zentsura dugu modako hitza gurean.

—Zentsura egongo da, gero eta gehiago, hor dago Fermin Muguruzaren kasua, Egunkaria ere zentsuratu dute, ni ere zentsuratu ninduten... Baina zentsura hori ez da egongo bakarrik artean edo komunikabideetan, arlo guztietara zabalduko da. Onena izango dugu bakoitzak bere alor txiki horretan lanean jarraitzea, zeren eta gero eta konbentzituago nago hemen kontua ez dela une batean zalaparta egitea eta gero isiltzea. Iraupen kontua da: iraun behar dugu eta irauteko metodo bat bilatu behar dugu, ez da gutxi. m

UKren 50. zenbakia da hau. Orain zortzi urte Bizarra Lepoan-egaz hasitako bideak zenbaki biribil honetara ekarri gaitu, eta hori ospatu beharra dagoela uste dugu. Horregatik, aldizkari honen historia ekarriko dugu gogora, bertan ordu asko eman dituzten batzuen oroitzapenak jasoko ditugu, eta erredakzioaren erraiak erakutsiko dizkizuegu. Zatozte ba geugaz, 1994an hasi zen bidaiari berriro egitera...

Urrezko Kazeta

Testua eta argazkiak: **UK-ko lantaldea**

UKren historiaz jardungo badugu, derri-gorrezkoa da haren aurrekariak, Bizarra Lepoan aldizkariak, jardutea. Eta zer hobe, horretarako, hasieratik hona aldizkari baten zein bestearen zuzendaritzan egon den Jokin Aspurgaz berba egitea baino. *“Garai hartan Euskal Herrian herri aldizkari asko sortzen zebiltzan, guk ez genuen ezer berririk asmatu. Hemen ezer ez zegoela konturatu ginen eta zozter erditzea burunatu zitzaigun”,* holan gogoratzen du Aspuruk Getxon euskarazko argitalpen bat sortzeko ideiarene hazia.

Getxo III institutuko ikasle ohi talde bat izan zen jaiotzearen zegoen proiektuaren lehen urratsak eman zituena. Irakasleren bat ere elkartu zitzairen, horien artean Bizarra Lepoan garapenean garrantzi handikoa izango zen Konrado Mugertza.






Mugertza arduratu zen, hasieran, baliabideak bilatzeaz. Hainbat erakundegaz harreman onak zeuzkan, eta alde horretatik diru-iturriak lortzea posible izan zen. Aldizkaria egiteko beharrezkoa zen teknologia ere berak eskuratu zuen. Gainera, disenuaz arduratu

zen, Getxo III-ko Kantarepe aldizkarian hartutako eskarmentuaz baliatuz.



Umeak izena behar zuen, noski. Hainbat proposamen egon ziren, tartean Getxo Telegraph, Arrasate Press-en ingelerarako joeraren ildo jarraitu gura zuena, baina azkenean Bizarra Lepoan aukeratu zen, Getxoko armarrarian agertzen den esaldia. *“Arraroa zen eta deigarria iruditu zitzaigun. Bestalde, oso getxoztarra zen”,* dio Jokin Aspuruk.

Lan ordu asko egin ziren euskarazko komunikabide berri sortzeko, musutruk beti. Izan ere, Bizarra Lepoan-ek iraun zuen hiru urteetan, sekula ez zen langile profesionalik egon. Hori geroago etorriko zen. Bitartean, aldizkariaren sortzaileek denbora lapurtu behar izan zioten euren bizitzetara. Lan eskerga hark fruitua eman zuen azkenik: 1995eko apirilaren 6an, Bizarra Lepoan 0. zenbakia kaleratu zen.

Aldizkaria Barrukoa tabernaren ondoko bulego ilun batean egiten zen, leihorik gabe, bitarteko gitxigaz, ahal zenean eta ahal



«Pertsonaia askok aurkitu dute kabia UK-ko orrialdeetan...»



zen moduan, baina ilusio handiz. Gaupasa bat baino gehiago ikusi zuten hango hormek. Sarritan, Barrukoa-ko hondarreko pintxoek eta pizzaz asetzen ziren Bizarra Lepoan egileek, Jokin Aspuruk gogoratzen duenez. *“Bide batez, bulego hura María Jesús Buenok utzi zigula aipatu gura nuke”*, gaineratu du UK-ko zuzendariak. Zoritxarrez, Buenok ez zuen bere eskuza-baltasunaren emaitza ikusteko aukerarik izan, aldizkariaren aurkezpen publikoa egin eta biharamunean hil zen eta. Agur bero bat hemendik, Marije.

Alez ale eta hilabetez hilabete, Bizarra Lepoanek aurrera egin zuen. Apurka-apurka irakurleen arreta bereganatuz eta ospea lortuz joan zen, eta halako batean jauzia egiteko garaia ailegatu zen.

UKren sorrera

“Alde batetik, proiektua modernoago, profesionalago, egin gura genuen”, dio Jokin Aspuruk, *“eta bestetik eskualde osora zabaldu behar ginela pentsatu genuen”*. Bizarra Lepoanek nahikoa harrera lortu zuen Getxon, *“baina gainerako herriek ez zeukaten indar nahikorik euren aldizkaria sortzeko”*. Salbuespena Urduliz zen, han Santamariñe zegoen eta. Aldizkari bien arteko harremanetatik, eskualderako aldizkari bat egiteko asmoa sortu zen. UK jaiotzeaz zen.

“Getxo III institutuko ikasle ohi talde batek sortu zuen Bizarra Lepoan”

Bata etorri, bestea joan. UK agertzeak Bizarra Lepoan desagertzea ekarri behar zuen ezinbestean. Hala ere, Bizarra Lepoan izena ez zen alperrik galdu... Aldizkariak ez eze, haren lege-babeserako sortutako elkarteak ere izen hori zeukan. UK sortu orduko berezko bidea jorratzen hasia zen elkarte, eta aldizkaria berria jaiotzean, guztiz aldendu ziren biak, organikoki behintzat. Bizarra Lepoan Getxoko euskara elkarte legez jarduten hasi zen, eta hala jarraitzen du gaur. Zer esanik ez, aldizkariaren eta elkartearen artean adiskidetasunezko harreman sendoa dago, eta askotan egiten dute lan elkarregaz.


Eskualdera zabaltzeak erronka berriak ekarri zituen. Konrado Mugertzak eman digu horren berri: *“Berriro harremanak gauzatzen hasi behar zen. Udaletxeakaz, merkatariakaz... Eremu txikia izan arren, ez zen erraza izan, eta zalantza asko sortu zitzaigun”*. Mugertza bera orduantxe hasi zen aldizkaritik urruntzen, lan kontuak zirela eta. Horrela, bizitzaren legeek aginduta, egin zuen alde aldizkari honen historiako pertsonarik garrantzitsuenetako batek. Berak, aldiz, bertatik igarotako jende mordoaren lana goraiatu gura du. Inor nabarmentzekotan, *“Jokin Aspuru nabarmendu beharke genuke. Bera izan da aldizkari bien benetako motore, inguruan ibili diren lagun guztien indarren katalizatzailea”*.

Kontuak kontu, UK-k bere lehen pausak ematen hasi zen, 1999ko ekainean. Aldaketa ugari zeuden Bizarra Lepoanegaz alderatuz. Hasteko, egoitza aldatu zen, ez oso urrunera egia esan. Amezti kaleko bulego dotore eta argitsu bat alokatu zen, eta hor jarraitzen dugu oraindik ere. Bestetik, diseinuari astindu ederra eman zitzaion. *“Argi geneukan kalitatezko produktua egin gura genuela”*, dio Jokin Aspuruk, *“eta horretan asko lagundu zigun Jorge Pérezek. Berari zor zaio hasierako UK haien itxura”*. Eta jakina, eskualdekoa izatea... Hasieran, hala ere, zabalkundea ez


zen erabatekoa izan; Getxo, Leioa, Erandio eta Berangoko informazioa ematen zen batez ere. Gainerako herriez, ezer gitxi.

Jauziz jauzi

Azken urteotan UK-k aldaketa ugari izan ditu, bata bestearen atzetik. Profesionalizazioa etorri da, eta langileak kontratatu dira. Apurka, eta zailtasun handiz, lantaldea handituz joan da, oraindik txikia den arren. Bidean zeozer galduko zen, jakina: *“Profesional bihurtzeak alde onak eta txarrak”* dituela uste du Jokin Aspuru zuzendariak, *“orain lanbidea dena lehen aisialdia zen, lagunakaz elkartzea, jai bat ia”*. Dena



«...eta hain ospetsuak ez diren eskualdeko herritarrek ere badute lekua UKn»





UK-ko lantaldea beharrean jo ta ke

Zelan egiten da UK?

Lerro hauek, eskuetan daukazun aldizkarian idatzi diren azkenak, kez gainezkako bulego batean sortu dira, langile arruntak etxean egoten diren orduan. UK hamaboskari bihurtu zenetik, horrela amaitzen dira beti zenbaki guztiak: eguen bateko ordu txikietan, hautsontzia gainezka, pintxo arrastoz eta garagardo lata hutsez inguratuta, hamalau edo hamabost orduko lanaldi baten amaieran. Epeak epe dira, eta inprimategiak ez du parkatzen. Aldizkaria garaiz bialdu ezean, lau edo bost urrats daukan prozesu oso bat doa pikutara. Ondorioa zuek aldizkaria berandu jasotzea izango litzateke.

Lerro hauek idaztea (eta zuzentzea, eta maketan sartzea), dena dela, hamalau egun lehenago hasitako bide baten azken urratsa da. Urrats asko eta malda bat baino gehiago daukan bidea, bide batez esateko. Lehenbizi, hurrengo zenbakiko edukiak erabaki behar dira. Hiru lagunen artean egiten denez, eztabaida politikak sortzen dira, baina azkenean beti lortzen da adostasuna. Beste irtenbiderik ez daukagu eta! Ondoren, benetako lana hasten da. Teklatua kupidarik gabe zanpatzen duen kazetariaren irudi tipikoa ez da inondik ageri lehen egunetan. Telefonoa da orain lanabes nagusia. Hara eta hona deitu behar da informazio eske, aldizkarian agertuko diren pertsonaiak harrapatu behar dira, eta elkarrizketa egitea onar dezaten lortu behar da (ez da beti erraza, batez ere erretratu egin behar zaiela jakiten dutenean), kolaboratzaileei euren testuak garaiz bialdu behar dutela gogorarazi behar zaie, testu bakoitzari lagunduko dion argazkirik egokiena zein den erabaki behar da... Lan polita da, baina buruhauste bat baino gehiago sortarazten duena. Edozelan, ezagutzea merezi duen jendea ezagutzeko aukera ematen du, eta hori da, zalantza barik, kazetariaren lanbideak daukan gauzarik ederrenetakoa.

Apurka-apurka informazioa batzen goaz, eta orduan bai, orduan hasten da teklatu-hotsa entzuten. Egunak aurrera doaz eta nor bere lana betetzen dihardu. Kazetariak idazten, argazkilariak argazkiak egiten, komertzialak publizitatea saltzen, diseinatzaileak maketak prestatzen... Eta halako batean, martitzena dela eta aldizkaria amaitzeko hiru lanegun geratzen zaizkigula konturatzen gara. Egoerari gainbegiratu emateko unea heldu da. Zein argazki falta den, hasieran erabakitako gaietatik zeintzuk ezin izango diren argitaratu, zein kolaboratzaile dabilen berandu... Arazoan zerrenda egiteko sasoia da azken batean, eta ez da sekula zerrenda laburra izaten. Orduantxe hasten da UK-ko erredakzioan oso ohikoa den esaldia entzuten: "Itsasontzia urpera doa". Azkenean, baina, itsasontzia portura heltzea lortzen dugu beti, kez gainezkako bulego batean, pintxo arrastoz eta garagardo lata hutsez inguratuta eta langile arruntak etxean egoten diren orduan. Ez da erromantizismo guztia galdu oraindik.

«Hamaboskaria egiten dugunetik, eguen bateko ordu txikietan amaitzen da beti UK»

dela, horrek ez du esan gura ilusio barik gabiltzanik. Lehengo izpiritua ez da guztiz desagertu; kolaboratzaile askok musutruk lan egiten dute, kasu batzutan Bizarra Lepoan hasi zenetik. Horietako batek, Bittor Egurrolak, dioenez, *"borondateak zer esana dauka oraindik hemen, lehen gaupasak egiten ziren eta orain ere bai"*. Ez dabil oker gure Bittor.

Iazko urtarrilean, UK-k pausu garrantzitsu bat eman zuen: 40 orrialde edukitetik 72 edukitera igaro zen. Aldaketa hori gehien igarri zuenetako bat Joseba Butron izan zen, duela gutxi arte gure testuak orrazteko erantzukizuna izan duen gizona hain zuzen. *"Ezuste galanta izan zen hura, bai, baina moldatu nintzen"*, dio. Butronek Aixerroten egiten du lan irakasle moduan, eta asteburuan ibili behar zen UK zuzentzen. *"Gogorra zen, baina denboraz, gero eta finago zetozen testuak, eta lan gutxiago neukan nik"*.

«Hamabostekari bihurtzea izan da UKren azken jauzia, eta beharbada inoizko handiena»

Aldizkaria hamabostekari bihurtzeak behartu zuen Joseba Butron ordu arte egiten zuen lana uztera, orain dauzkagun lan moldeak nekez ezkontzen direlako hark halabeharrez zeukan egutegiagaz. Hamabostekaria izatea da, hain zuzen, UKren azken jauzi handia, eta beharbada orain arteko handiena. Horregaz batera, benetan Uribe Kostako bihurtu gara, Erandiotik Lemoizeraingo herri guztietako informazioa emanez.

Honaino abentura eder honen historia. Gertakari asko geratu zaizkigu aipatzeko, eta izen asko ere bai, UKn irudien kalitateari ematen zaion garrantzi itzelaren "errudunarena" esaterako. Mikel Martínez dugu bera, etxe honetan ordu asko emandako gizona, eta pekatu larria izango litzateke kronika honetan bere izena ez agertzea. Gainerakoei, bihotzean ditugula gogoraraztea besterik ez zaigu geratzen. m

Eskerrik asko!

Urte luze hauetan hamaika lagun ibili da etxe honetan beharrean bai **Bizarra Lepoan** bai **UK** aldizkariak argia ikus zezaten: eurei gure esker ona.

Iratxe Agirre, Jabier Agirre, Raúl Agirre, Itziar Aio, Guillermo Almagia, Unai Amezaga, Joxi Arakama, Itsaso Arana, Unai Ardeo, Isusko Arias, Amaia Arriaga, Josu Arroyo, Jokin Aspuru, Gorka Aurre, Iñigo Azkona, Izaskun Azkunaga, Rikardo Badiola, Gorka Basañez, Aitor Belasko, Itziar Benede, Amaia Benguria, Amaia Bilbao, Xabier Bilbao, Unai Brea, Xabier Buenetxea, M^a Jesús Bueno, Maitane Burusko, Joseba Butron, Edorta Cachorro, Itsaso Castillo, Alberto de Abajo, Itziar de Cos, Jokin de Pedro, Patxi Díaz, Dora Diez, Bittor Egurrola, Aitor Elizegi, Igor Elordui, Unai Elorriaga, Arantza Etxebarria, Gaizka Escudero, Josu Esnaola, Nagore Etxebarri, Esti Ezkerra, Juan Luis Fernández, Oskar Fernández, Iñigo Fernández de Martikorena, Jon Gabilondo, Amalia Galarza, Aitor Gisasola, Tomás González, Jabi González del Herrero, Jabi Gorostiza, Dogan Gozel, Sorkunde Guraia, Joseba Hormaetxea, Josu Igartua, Urtzi Iglesias, Txelo Inoriza, Gonzalo Iribarnegaray, Idurre Iturrioz, Jurdana Izagirre, Jon Juaristi, Akaitze Kamiruaga, Xabier Kintana, Janire Korkostegi, Nerea Landa, Txolo Landaluze, Unai Larrazabal, José Ignacio Lobo, Iker Lores, Andoni Llosa, Guillermo Malaina, Jokin Malaxetxebarria, Mikel Martínez, Olatz Martínez, Zuriñe Martínez, Zaloe Méndez, Asier Mentxaka, Iker Merchán, Iñigo Mirantes, Ziortza Morales, Konrado Mugertza, Ibon Munitxa, Verónica Muñoz, Rosa Olabarrieta, Gorka Orueta, Xabier Paia, Marino Perales, Jorge Pérez, Ibon Rodríguez, Peru Ruiz, Eunete Sánchez, Kristina Sangroniz, J. Santakruz, Joseba Santxo, Eunete Serrano, Bea Sever, Irantzu Sotés, Xabier Txakartegi, Edurne Ugarte, Garbiñe Ugarte, Jon Ugarte, Sabin Ugarte, Iñaki Ugarteburu, Lurdes Unzueta, Mitxelko Uranga, José Mari Uribarri, Jon Urresti, Mikel Urriz, Gorka Vázquez, Jabi Zabala, Belen Zelaia, Josu Zubiaur, ALBE, Berbots Erandiotiko euskara elkarte, Bizarra Lepoan euskara elkarte... eta ahaztu ditugunak!



● zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

● **Boluntzarreta**

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

zineeskola

Oskar Fernández

Zinemaren
hizkuntza eta
literatura (I)

Zinemaren eta literaturaren hizkuntzek lotura handia dute, baina istorioa adierazteko eta garatzeko orduan arlo biotako bakoitzean agertzen zailtasunak guztiz dira desberdinak. Idazle batek toki bat edo ikuspegi bat deskribatu nahi badu, nahiko "erraz" egingo du egoki deritzen esaldiak kateatuz. Film-zuzendari batek, ordea, irudien bitartez egin behar du lan bera, eta beraz, horretarako duen tresna bakarra planoak dira, filmak planoak osatuak daude-eta. Hizkuntza idatziak zailtasunak ditu, zalantzarik gabe, baina hala ere askoz errazagoa izango da beti edozer hitzen bidez adieraztea irudien bidez baino. Adibide baterako, eleberri bat hartu eta honelako zerbit irakurriko dugu: Jon ohetik altxatu zen, leihora hurbildu eta hunkiturik hiriaren goibeltasuna euri azpian ikusi zuen. Esaldi bakar bati esker, gure irudimenaren poderioz Jon ohetik altxatzen ikusi dugu, bere logelako leihora hurbiltzen, hiriaren aurrean sentitu duenaz jabetu gara, bai eta jakin ere zer nolako eguna egiten duen. Edonor jabetzen da gauza bera irudiez adierazteak duen zailtasunaz: zenbait planotan banatu beharko litzateke ekintza eta ikuspegia; esate baterako, plano erdia edo osoa Jon ohetik altxatzen dela erakusteko; plano berean, seguru asko, leihora doala ikusiko genuke; beste plano baten bidez Jonen aurpegia ikusi beharko genuke, eta azkenik beste bat -edo berbera- hiria erakusteko. Zailtasun hauez jabetuta, argi dago ia ezinezkoa dela eleberri batek duen aberastasun osoa irudien bidez adieraztea, arte biok nabarmen dira-eta desberdinak, zenbait aldetatik antzekotasunak badituzte ere. 4


Polemikaren dokumentala

Julio Medemen **Euskal pilota, larrua harriaren kontra** ikusgai zinema aretoetan

Urte askotan fikziozko filmak egin ostean, Julio Medem zuzendari donostiarrak euskal gatazkaren gaineko dokumental ausarta egin du, *Euskal pilota, larrua harriaren kontra* izenburuko; bertan 70en bat lagunengatik adierazpenak bildu ditu, Mikel Laboaren musikagaz. Sumatu zitekeen bezala, Medem kulturako orrialdeetatik politikakoetara igaro da, batez ere filmaren inguruan sortu diren hamaika esamesen eta polemiken ondorioz. Ermuko Foroaren kide diren Gotzone Morak eta

«Dokumentala proiektu zabal baten hasiera da»

Iñaki Ezkerrak euren agerraldiak kentzeko eskatu zioten zuzendariari, dokumentalean *"biktimak eta terroristak maila berean ipintzen direlako"*, eta *"abertzale gehiago agertzen direlako konstituzionalistak baino"*. Eskaera hori Donostiako Zinemaldian estreinatzeko egun gitxi falta zirela egin zuten, beraz lurrikara hasita zegoen dagoeneko; zenbait komunikabidek eta pertsonak oso gogor kritikatu zuten bai egilea bai pelikula, askok ikusi ez zuten arren. Polemika puri-purian zegoela eman zuten *Euskal pilota, larrua harriaren kontra* Kursaalaren, irailaren 21ean; emanaldia



Julio Medem zuzendari donostiarra

amaitu ostean, Julio Medemek eta bere lanak txalo zaparrada eta kritika onak jaso zituzten.

Urriaren 3az geroztik, 115 minutuko iraupena daukan dokumentala areto komertzialetan ikus daiteke. Proiektu zabal baten hasiera besterik ez da, euskal gatazka ardatz hartuko duena: hiru ataleko telesaila, Gabonetan kaleratuko den bost orduko DVDa, 900 orrialdeko liburua eta datoren urtean filmatzen hasiko den *Aitor, larrua harriaren kontra* film luzea. Dokumentala burutzeko Medemek ez du jaso diru-laguntzarik, eta *Lucía y el sexo* pelikula irabazi zuen diruagaz egin du. m

Ez galdu > "Euskal pilota. Larrua harriaren kontra"



Bai gure artean eta bai Espainian oso ezaguna den Donostiako zine-zuzendari batek arrakasta handiz eraman du zinemetara bere azken lana, aurtengo Donostiako Nazioarteko Zinemaldian aurkeztu ostean: jakina, Julio Medem eta *Euskal pilota*. *Larrua harriaren kontra* dokumentalaz gabiltza. Eztabaida sutsu eta zikina sortu zen lan honen inguruan estreinaldiaren aurretik, baina Medemek inoizko txalo zaparradarik ederrena lortu zuen Zinemaldian. Ez dakit *Behiak* filmaren zuzendaria Orson Welles maisuak Euskal Herria gai hartuta telebistarako egin zituen bi dokumentaletan oinarritu ote den, baina agerian dago lan bikaina egin duela: erritmoa gero eta biziagoa bilakatzen da, irudien tratamendua ona du oso eta musika ederra eta atsegina -Mikel Laboarena-. Dokumentalaren gaiak nor bere iritzia izango du, baina eztaba daezinekoa da dokumentalaren kalitate ona.

Karisma eta nortasuna

Rockadelica laukote getxoztarrak lehenengo diskoa kaleratu berri du

Jorge Hernández (bateria), Dani Cabanela (ahotsa eta gitarra), Txema Solano (baxua) eta Jantxo Durán (gitarra) dira Rockadelica taldea osatzen duen Getxoko laukotea, abeslaria Minnesotan jaio zen arren. Hilean behin, Barrikako *Golfo Norte*-n jotzen dute, eta zuzenean eskarmentu handia lortu ostean, dagoeneko badaukate lehenengo diskoa. Gurean egiten diren soinuakaz ez ei dauka zerikusirik, taldearen estiloaren sustraiak 70. hamarkadako rockan daude-eta; izan ere, AEBtako talde askoren eragina nabaria daukate: Allman Brothers, Grateful Dead, The Black Crowes... Rockadelica-n egon aurre-



Rockadelica laukotea

«CDan 11 abesti luze bildu dituzte, ingelesez eta bertsiok barik»

rik (erabiltzen duten hirugarren izena da), taldekideek banda askotan jo izan dute. Orain ailegatu zaie, antza, lehen lan profesionala kaleratzeko ordua; *Rockadelica* izeneko CDa kalitate handikoa da, eta erakarritasuna ere ezin zaio ukatu. Javi Letamendiak ekoiztu du, eta bertan gitarrez beteriko 11 abesti luze entzun daitezke in-

gelesez; kanta guztiak beraiek idatzi dituzte, eta beraz, bertsiarik ez dago. Diskoa multinazional batez (EMI edo MuXXIc) kaleratzeko aukera izan dute, baina azkenean, hizkuntza eta estilo kontuak direla-eta (krisi diskografikoa ere tartean dago), laukoteak berak kaleratzea erabaki du; horregatik, 600 aleko tirada txikia egin dute gastuak berreskuratzeko. m

diskoak

Ganbaratik
Keu
Gaztelupeko Hotsak



2000n, Jesus M. Agirretxea *Keu*, Etsaiak-eko gitarrak-jole lekeitiarrak rock progresiboa eta *new age* estiloak hurbiltzea lortu zuen bere lehen diskoagaz. Hiru urte geroago, horren bigarren atala ailegatu zaigu, *"aurrekoa baino pertsonalagoa"*. Ganbara batean grabatua, Jon Gurrutxagaren eta Selektah Kolektiboaren ahotsak ditu entzungai.

Everything must go
Steely Dan
Reprise



Walter Becker-ek eta Donald Fagen-ek osatzen duten bikote veteranoak disko bakarra kaleratu du 23 urtean; beraz, lan berri hau kaleratzea bera bada aipagarria, besterik gabe. Steely Dan-en betiko estiloko abestiak dakartza, baina oraingoak balira bezala entzuten dira. Horrek esan gura du bikotearen musikak ez duela adinik.

Hail to the thief
Radiohead
EMI



Thom Yorke buru daukan taldeak aspaldian erabaki zuen adimenaren alde apostu egitea rockaren uni-bertsioan; horregatik, Radiohead-en diskoak korapiltsuak dira, baina baita hunkigarriak ere. 14 abesti dituen lan bikain berri honetan, Oxford-ekoek tentsio elektronikoa eta sentiberatasuna erakusten

Heltzear >
Oskorriren berria

Oskorri taldea irailaren 15ean hasi zen *Desertore* izeneko disko berria grabatzen; 25. urtebetetzeko diskotik hona Natxo de Feliperen taldeak

egin duen lanik trinkoena eta freskoena da. Hamahiru kanta topatuko ditugu bertan, eta ia taldekide guztien konposizioak daude. Testuei dagokienez, Oskorrikoek idazle eta bertsolari gazteen laguntza izan dute (horien artean, Unai Elorriaga getxoztarrarena). Beste zenbait musikari ere aritu dira urriaren azken aldera kaleratuko den *Desertore* diskoaren grabazioan: Eliseo Parra, Faltriqueira, Alos Quartet, Leturia...

Maketak >
Euskadi Gaztearen
lehiaketa

Euskadi Gazteak urtero Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzaren laguntzagaz antolatzen duen maketa lehiaketa abian da dagoeneko; hortaz, zabalik dago hamahirugarrena den aldi honetarako lanak bidaltzeko epea, hilaren 26ra arte. Euskal Herriko talde eta bakarlari guztiak parte hartu ahal dute, eta horretarako, gutxienez hiru abesti jasotzen dituen maketa bidali behar da CD euskarrian. www.eitb.com/egaztea helbidean aurkituko duzue argibide gehiago.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (VII)
Aluzinantea

2003ko urrian jarraitzen dugu. Kioskora jeitsi naiz goizean, eta gaurko prentsa erosi dut. Julio Medemek Zinemaldian aurkeztu zuen dokumentalari buruz egunkariak zer dioten irakurtzeko gogoia daukat. Badakit halakoetan umore txarrez jartzea besterik ez dudala lortzen, baina tira, kontu hauetan beste hainbatetan bezala pixka bat masokista naiz. Egia esateko, aurkitu dudanak ez nau batere harritu. Are gehiago, bakoitzarengandik espero nuen bertsioa topatu dut orrietan. Nobedaderik ez, beraz. Edo bai, aldaketarik gertatu da. Aurrerantzean, Donostiako zinema zuzendaria *persona non grata* izango da alde batekoentzat. Prentsa alde batera utzi eta ordenagailura jo dut zuzenean. Ea mezu elektronikoen artean eguna alaituko didan baten bat aurkitzen dudana. Zerrendari begiratu arin bat bota ostean, aspalditik bizi seinalerik ematen ez duen lagun baten mezutik hastea erabaki dut, berri onen bat emango didan itxaropenarekin. Baina ez, bestelako kontu batek bultzatu du hilabetetako isiltasuna puskatzera. Laburra da bere oharra, Sustatu.com-en sartzeko besterik ez du esaten. Arren, Josu Landaren testua irakurtzeko. Aluzinantea. Hitz horrekin zehazki zer esan nahi duen jakin barik, baina kuriositateak jota aipatu helbidea kontsultatu dut. Eta arrazoia dauka. Aluzinantea. Horixe da hitzik egokiena. Hasier Etxeberria ere *persona non grata* bihurtu zaigu, baina beste aldekoentzat. Batzuetan ezinezkoa da munduarekin adiskidetzera. 4

Soinujolearen semea

Bernardo Atxagaren liburu berria Durangoko Azokaren aurretik kaleratuko da

Pamiela argitaletxeak aditzera eman duenez, Bernardo Atxagaren nobela berria, *Soinujolearen semea* izenburukoa, udazken honetan argitaratuko da; data zehatzik jakinarazi ez duten arren, dendetara abenduaren hasieran izaten den Durangoko Azokaren aurretik ailegatuko dela ziurtatu dute. *Soinujolearen semea* eleberriarri azken ukituak ematen dabilen bitartean, sariak pilatzen jarraitzen du idazle asteasuarrak; azkenengoa jasotzeko Italiara joan behar izan du, poesia arloko Cesare Pavese saria eman diote-eta, *Poemas & Híbridos* liburuaren italiarazko bertsioagatik. *Dall'altra parte della frontiera* izenburuagaz kaleratu zen Guanda argitaletxearen eskutik eta Giuliano Sorriaren itzulpenagaz.

«Atxagak Cesare Pavese saria jaso berri du Italian»

Ahoa betetzen zaigu Bernardo Atxaga euskal idazlerik onenetarikoa eta Euskal Herrikan kanpo ezagunena dela diogunean, baina halaxe da, hau esatea topiko hutsa bihurtzeko bidean badago ere. 1989an *Obabakoak* kaleratu zuenetik mundu osoaren mirespena dauka. Atxagak begirune handia lortu du, eta begirune hori berretsi




Joseba Irazu Garmendia, Bernardo Atxaga

egin da lan berri bat argitaratu duen bakoitzean: *Behi euskaldun baten memoriak* (1991), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995), *Sara izeneko gizona* (1996) eta *Groenlandiako lezioa* (1998), besteak beste. Bere lanak 20 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dira (besteak beste, esperantora eta braille-ra). Hamaika sari ere jaso ditu han-hemenka: Euskadi Saria, Kritikarena, Espainiako literatura-sari nazionala... Zerrenda amaiezina da, eta seguru asko jarraipena izango du *Soinujolearen semea* kaleratu ostean. m



Soinujolearen semea
Bernardo Atxaga
Pamiela
Salneurria erabakitzeke

liburuak



Glosak. Esana zetorrenaz
Tere Irastortza
Pamiela

Tere Irastortza, Euskal Idazleen Elkartearen presidentearren bederatzigarren poesia liburu dugu honokoa. Glosa hauek hiru ataletan datoz banatuta, eta ulertzen zailla den munduari erreparatuz egindako oharrak dira.



Gerezi-lorea
Batzen artean
Elkar

Japoniako lau kondaira egokitu dituzte beste horrenbeste idazlek 47 orrialdeko liburu honetan. Maitasunera, sentiberatasunera eta fantasiara gonbidatzen gaituzte kondairorok, eta Japongo kulturaren adierazgarri txiki bat dira.

Gorliz Irratia >

Aro berri baten erronka

Koldo Alonsok zuzen duen irratiak eskualde osora ailegatu gura du

32 urteko Koldo Alonso gorliztarra orain dela sei urte hasi zen Gorliz Irratian kolaboratzaile, baina iaiztik zuzendari lanetan dihardu. 1991n sortutako irrati honetan dozena bat lagun inguru dabilta beharrez, "denak bolondresak, euren aisialdia irratian eskaintzen diote musu-truk", diosku Alonsok. Gorlizkoa ez da udal irrati; zuzendariak "Udalaren laguntza daukan bertoko irrati bat" dela dino: "Hau da, zuzendaritza-batzordea independientea da, eta gu ez gara funtzionarioak".

«Kultura, musika eta zinema ditu hizpide egungo Gorliz Irratiak»

Garai latzak bizi izan ditu Gorliz Irratiak azken urteotan, "lau hilabetez igortzeari utzi ere egin zuen"; baina iaizko maiatzean talde berri batek hartu zuen ardura, eta garai berri bati ekin zioten gogotsu, hainbat erronkagaz: "Nagusia, kolaboratzaile onak lortzea eta proiektu hau aurrera atera gura duen jendea erakartzea". Horregaz batera, entzule gehiago eta horien partaidetza lortzea eta irrati finkatzea ere helburutzat dauka Koldo Alonsok.



Koldo Alonso, Gorliz Irratiko zuzendaria

Orain arte, Gorliz eta Plentzian baka-rrik entzun zitekeen garbi Taberne Aurre kaleko estudioetatik ateratzen den seinalea, "baina berehala Uribe Kosta osora eta Mungialdeko zati batera ailegatzera espero dugu". Arratsaldeetan ematen dute zuzeneko programazioa (FMko 107.8an), eta kultur kontuak jorratzen dituzte bertan, musika eta zinema batez ere; "alabaina, ikasturte honi begira, gustatuko litzaziguke saio horiei jarraitutasuna ematea eta goizeko programak edukitzea, albisteak". m

Harremanetarako: 94 677 45 75

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Ikusi >

Hau komeria

Arte eszenikoak mintzagai dituen programa honek seigarren denboraldia bete du. Idoia Agirre dauka aurkezle, eta hurbileko agertokietan ikusgai diren ikuskizunen gaineko informazioa ematen digu. Horretaz gain, jarraipena egiten diete 90eko hamarkadan Euskal Herrian sortu ziren antzerki-taldeen *Kaleidoskopio* izeneko atalean. *Ad Libitum* atalean, berriz, musikara hurbiltzen dira, eta *Atzealdean* izenekoan, arte eszenikoen arloan lan egiten duten profesionalak berba egiten digute euren ibilbideaz. Agendak, berriek eta kontraportadak ere osatzen dute *Hau Komeria* (ETB1, eguenean, 00:10etan) eta *Desde el Gallinero* gaztelaniazko bertsioa (ETB2, domeketan, 11:15etan).

Irakurri >

Campusa

2000ko otsailean eman zituen lehen urratsak Campusa aldizkariak, aurretik EHUko Euskara Errektoreordetzak argitaratzen zuen aldizkari baten izena hartuta. Gaur egungo Campusa EHUren aldizkari ofiziala da, eta postaz banatzen zaie bertako kide guztiei. Gutxi gorabehera 70.000 ale ateratzen dira, beraz. Koloretako 52 orrialdetan zehar, unibertsitateko gaien gaineko informazioa ematen du Campusak, euskaraz eta gaztelaniaz. Orain arte, urtean bederatzidider kaleratu dute (hilero, ikasturteak dirauen bitartean), baina aurrerantzean zortzi izango dira. Erdiko orrialdeetan, euskararen gaineko berriak ematen ditu.

Harremanetarako: 94 601 20 65

uhinakFM

Getxo Irratia87.6
Koska Irratia89.8
Radio Euskadi92.4
Euskadi Gaztea94.7
Bilbo Hiria Irratia96.0
Tas-Tas Irratia97.0
eitb irratiak100.1
Bizkaia Irratia102.6
Euskadi Irratia104.4
Pititako Irratia107.0

Gure espezieak >

Sator itsua



- **Izen generikoa:** Talpa occidentalis
- **Izen arrunta:** Sator itsua
- **Berezitasunak:** 90-140 milimetroko luzera; buztanak, 21-30 milimetro
- **Bizilekua:** Soroak eta zelaiak

Sator arruntaren antza eduki arren, badi-tu zenbait berezgarri oraingoan atal honetara dakargun sator itsuak edo mendebaleko satorrak: oso ile fina eta ugaria dauka, begiak txikerrak eta erdi ezkutatuak, eta aurreko hankak zabalak, azazkal luzeak lurra behar bezala

«90. hamarkadan lau sator itsu hilda aurkitu zituzten Getxoko zenbait gunetan»

zulatzeko; hala ere, berezitasun nabariek ez dira hain errez antzematen: sator itsua arrunta baino txikiagoa da tamainaz, eta muturra, berriz, motzagoa eta zabalagoa du. Zelangura ere, oso errez ikus ditzakegu bai bata bai besteak azaleratzen direnean zelaietan uzten dituzten lur-piloak.

Zoru sakonak eta hezeak dituzten soropetan topatzen ditu bizileku dituen lurpeko galeriak induskatzeko tokirik egokienak; Getxon, esaterako, ibaibideetatik eta Bolueko hezeguneetatik gertu dauden zelaietan agertu izan da ezustean. Guztiagatik ere, ez dakigu animalia honen kopuru zehatza zein den (ia datirik ez dago-eta), baina 90. hamarkadan, hilda zeuden lau sator itsuren arrastoak aurkitu ziren, guztira, Kandelu, Gabela eta Larrañazubi erreken inguruetan. Ezer gutxi dakigu lurpeko biztanle honen bizimoduaz, baina zelangura ere arruntaren antzekoa ei da. Itsua denez, ukimena da gehien garatuta daukan zentzumenena, baina usaimena ere ezinbestekoa du harrapakinak somatzeko eta harrapatzeko: zizareak jaten ditu gehienbat.

38 UK

Gaia > Getxoko Ingurumenaren Hezkuntza egitaraua

Eskola naturara

Patxi Díazek eta Carmen Marínek hogeitau urte daroetz Getxoko ikasleei ingurunea erakusten

Duela 22 urte jarri zen abian Getxoko Ingurumenaren Hezkuntza Egitaraua ("Ibilbide Ekologikoa" izenez ezagutzen dena), eta ia hasieratik Patxi Díaz eta Carmen Marín berangoztar biologoek jardun dute horren irakasle, bakarrak izan ez badira ere. Euren etxean, Algotan, elkartu gara Patxi eta Carmenegaz, Getxon baino ez dagoen egitarau honen gainean berba egiteko. "Getxoko 18 ikastetxeakaz egiten dugu lan", dioskue, "Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan eta DBHko 1. eta 2.etan". Lau ikasturte horietan zehar, ikasle bakoitza hamaika egunez baino ez da egongo eurakaz, baina hori nahikoa da urritik maiatzera egunero lanpetuta ibiltzeko. Egitarauak dirauen bitartean, ikasleek Getxoko ekosistemen ezaugarriak ikasten dituzte: nekazal-eremua, hiria, itsasertza... Egun batzuk txangoak egiteko hartzen dira (hondartzara, Boluera...), eta beste batzuk eskolan bertan ariketak egiteko. "Gure helburua zera da: ingurumena erabiltzea ezagupide batzuk emateko, eta jarduera arduratsuek eragiteko", esan

digute. Hori bai, gero eta zailtasun handiagoak dauzkate irtenaldi batzuk egiteko, lehen landareak zeuden lekuetan porlana dagoelako orain. Kontuak kontu, ingurunea ezagutzen eta errespetatzen irakasten dihardute Patxi eta Carmenek. Eta zeozer lortu dute antza. Diotenez, "gure ikasle izandako bantzuek geuk bultzatuta ikasi ei dute biologia". m



Argazkian, Patxi Díaz ikasleei eskola ematen



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa

DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Josean Llorente >

Andrés Isasi Musika Eskolako zuzendaria

“Musika ikasteko eskaera handia dago”



Argazkian, Josean Llorente

41 urte ditu eta bilbotarra da. 1986tik Getxoko Andrés Isasi Udal Musika Eskolan egiten du lan (eskola hasi zenetik, beraz), eta 1992tik bertako zuzendaria ere bada. Ekonomialari titulua dauka, baina gainera, musikagaz lotutako hamaika tituluren ugazaba ere bada: musikaren pedagogia, pianoa, konposizioa, txistua... Elkarrizketa egitean oso argi geratu zaigu, zeozer geratu bazaigu, Josean Llorentek aita baten maitasunez maite duela bere lana.

—Zelan sortu zen Musika Eskola?

—Hau Euskadin garatu zen prozesu zabal baten barruan kokatu behar da. Autonomia Estatutua onartu eta eskuduntzak berreskuratzen hasi zirenean, udaletxeak, euren herrietan musika ikasteko zailtasun handia ikusita, udal kontserbatorioak sortzen hasi ziren. 80ko hamarkada hartan, batez ere 85etik aurrera, Euskadin ia udal guztietan sortu ziren kontserbatorioak, eta gero, gehienak, musika eskola bihurtu.

—Eta zein da, bada, musika eskolaren eta kontserbatorioaren arteko aldea?

—Kontserbatorioen helburu nagusia musikari profesionalak hezitzea da. Gurea, berriz, musikaren irakaskuntza zabal eskaintzea, hiruzpalau ardatzetan oinarrituta: bata, adina ez dela oztipoa izan behar; beste bat, musika-joera guztietarako lekua dagoela (kontserbatorioan, berriz, musika klasikoa baino ez da lantzen); hirugarrenik, taldeka jotzeko derriortasuna, hau da, ikasleek orkestretan

edo talde txotxotan jotzea hasieratik; eta jakina, irakaskuntzaren erritmoa askoz hobeto egokitzen zaiola ikaslearen erritmoari. Kontserbatorioan ikasleak askoz egitarau zurrungoak bete behar ditu. Horrek ez du esan gura, dena dela, eskola musiketako ikasle asko profesionalak izatera ailegatu ezin daitezkeenik. Geuk ere arreta berezia ematen diegu musikari iaioak diren gure ikasleei.

«Musika-joera guztietarako lekua dago gurean»

—80ko hamarkadan eskari handia zegoela esan duzu. Orain gehiago dago?

—Bai, eta bi edo hiru zentzutan gainera: eskari handiagoa dago umeak gazteago hartzen ditugulako; lehen, 8 urtetik aurrera soilik hartzen genituen; orain, 4 urtetik aurrera. Gainera, helduak ere etortzen hasi dira musika eskoletara. Eskari handiagoa dago, era berean, bere garaian ikasten ibili eta gero utzi zuen jendeak ikusi duelako orain ez dela lehen beste eskatzen, ez dela lehen bezain gogorra. Nabari da, bai, eskaria handitu dela, batez ere helduei dagokienez.

—Zein musika-joera da nagusi eskolan?

—Hori eskaintzaren arabera da. Gu, adibidez, Euskadin jazz irakaskuntza eskaintzen lehenengoetarikoak izan ginen, lehenengoak izan ez baginen. Oro har, jazz, rock, pop eta erro tradizionalako musika (txistua, alboka, trikitixa...) eskatzen digu ikasleriak. Gainera, hemengo irakasleetako asko buru-belarri sartu dira ildo horietan eta... Nik uste dut gaur egun eskola gutxi izango direla ildo horretan sartuta ez daudenak. m

Gogoa >

Autoestimua

Nagore Etxebarri psikologoa

Aurreko artikuluetan jorrotutako arazoetarako laguntza pixka bat ekar dezakeen iturri bat aurkeztearren, autoestimua zer den azalduko dugu hemen, gainetik bada ere:

Maiz entzun dugun hitz magiko horrek nork bere buruaz duen iritzia adierazten du. Egia esanda, iritzia baino trinkoagoa da, ez baitugu subjektibotzat hartzen. Ideia horren inguruan epaitzen ditugu gure gaitasunak eta egindakoaren emaitzak. Beraz, gure buruarekiko zorrotzeak bagara eta dena bikain egiteko gai garela uste badugu, ez diogu akats bat ere parkatuko; eta gainera edozein muga, (lortezina izan arren) gainditu beharra dugula sinestuko dugu. Horrek gainbehera handiak ekar ditzake, eta baita estresa ere.

Aldiz, geure gaitasun guztiak ukatu edo zalantzan jartzen baditugu, ezer ongi egiteko gai ez garela pentsatuko dugu, eta ez diogu geure buruari muga gainditzeko aukerarik emango, porrotaren beldurrez. Ondorioz, ez dugu lorpenik izango eta galtzaile sentimendua sustraituko da gugan. Gainera, ingurukoen lorpenak ikusirik geure burua besteen aldean gutxiesteko joera izango dugu.

Oro har, bi mutur horien artean gabilza gehienok, eta horretan datza osasuna, oreka horri eustean. Hau dela eta, ez dator txarto tarteka barnehausnarketa egitea: bizitzan gainditu ditugun erronkak gogoratu eta besteek gugan aipatzen dituzten ezaugarri onak zenbatzea, oker egindakoekin eta jasotako kritikekin alderatuz geure autoestimua sendotzeko.

Gorputza > tabakoa

Tabakoaz hainbat kontu

Peru Ruiz medikua

Tabako kutxatxoetako mezuen kanpaina beharbada gordinetia begitantzen bazaigu ere, ez dago ukatzerik egia daukala bere alde: sarri entzunak ditugun biriketako, larriko eta beste hainbat minbiziez gain, tabakoak zerikusi handia du bronkitis kronikoarekin eta gaixotasun kardiobaskularrakin. Ugalkortasunarentzako eta ume-kiarentzako kalteak ere (pisu eskasa, abortu arriskua...) guztiz frogatuta daude.

Tabakoak –edo nikotinak, zehatzago esanda– menpekotasuna sortzen du, bai psikologikoa, bai farmakologikoa. Erretzaileen artean %90ek(!) erakusten du mailaren bateko menpekotasuna. Absti-



«Egunero pakete bat tabako erretzeak bizitza laburtzen du, 6 urtez batez beste.»

nentzia sindromeak hilabete inguru irauten du.

Egunero pakete bat tabako erretzeak bizitza laburtzen du, 6 urtez batez beste. Horrez gain, lan-uztealdiak eta ohean egon beharreko egunak %15 ugaritzen ditu. Espainian, heriotzen %15ek lotura zuzena dute tabakoarekin. Ez da ahuntzaren gauerdiko ez-tula: 47 bat lagun urtero!

Ikerketak ugari dira erretze "pasiboaren" arloan: tabakoaren kea da heriotza gehien eragiten duen ingurumen-kutsatzailerik! Ez-erretzailea egunean zigarro oso bat arnastera irits daiteke; bihotzekoa jasateko arriskua %30 handitzen da, eta biriketako minbizia garatzeko, %26. Gurasoek erretzeak umeen arnasbideetako gaixotasunak areagotzen ditu!

Light zigarroei dagokienez, egia da kalte txikiagoa egiten dutela, alkitran eta nikotina gutxiago dutelako. Hala ere, ez erretzearekin alderatuta, eskasa da dakarten onura. Gainera, azken batean erretzaile gehienek nikotina kantitate berbera hartzen dute, zurrupada sakonagoak eginez, filtroa atzamarrekin estutuz... Amaitzeko, aipatzekoa da argitu gabe jarraitzen duela zigarro hauei gehitutako sustantzien ondorioak zein diren... m



Adinduek, ertzainek, udaltzainek eta dantzariak erabili ohi dute txapela gaur egun

Txapela buruan...

...eta ibili munduan

Euskal janzki nagusia dugu. Txapelaren jatorriaren inguruan asko eztabaidatu da, eta izenak berak ezadostasuna sortzen du. Bost axola: txapela dagoeneko euskaldunen nortasunaren ikur bihurtu zaigu, erabili, gero eta gutxiago erabiltzen den arren.

Gubitan izan da hain janzki xumea herri baten itxuraren adierazle. Txapela erabiltzearen lehen aztarnak Erdi Arokoak dira; gerora zabalduz joan zen, baina Karlistadak gertatu ziren arte ez zen hedatu euskal gizartearen maila guztietara, gaur egun ezagutzen dugun formagaz. Euskal txapel petoak atal bakarrekoa, guztiz biribila eta zapala, eta artilezkoa izan behar du; gainera, txortena daukala erdian.

Antza, 'txapela' hitza Bizkaia, Gipuzkoa eta Hego Nafarroan bakarrik erabiltzen da; Ipar Nafarroan, berriz, 'boneta'. Gure bizilagun europarrek, bestalde, 'euskal txanoa' deitzen zioten zalantza barik.

Sorrerari dagokionez, hamaika teoria daude, baina onartuenak Pirinioetan kokatzen du jatorria: Biarnoko nekazariak izan ei ziren lehenak kapela mota

hori erabiltzen; gero, Pirinioetako alderdi frantsesean egin zen orokor, eta Bidasoaz beste aldera igaro, Gipuzkoara. Halaber, berdintasun asko aurkitu gura izan dituzte txapelaren eta Eskozia, Flandes eta Italiako kapelen artean.

Janzteko modua ere jabearen jatorriaren adierazle da: euskaldunak ozta-ozta sartzen du txapela buruan; beste lekuetan, berriz, belarrietaraino sartzen dute. Erabiltzailearen abileziaren arabera, atzera, aurrera, ezkerrera edo eskubira oker daiteke. Traketsek esku biak behar dituzte janzteko; trebeek, berriz, esku eta kolpe bakarraz, nahiko.

Tolosan 1859an sortu zen *Boinas Elósegui*, eta Balmasedan 1892an ireki zen Boinas La Encartada lantegiak aipatu behar dira nahitaez, garrantzi handia izan dute-eta txapelaren historia luzean eta korapilatsuan. m

«Biarnoko nekazariak izan ei ziren lehenak kapela hau erabiltzen»

I

I aki
Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta



Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s


ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com




Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxa: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerre
ALGORTA

Gonzalo Iribarnegaray
idazle eta bidaiari getxoztarraren eskutik

“Un mes en Bostwana”



Eskatu zure liburudendan!

4. INDABADA MUNDIALA



Urriak 25, zapatua
Txiki Otaegi plazan,
herri bazkaria, sagardo
dastaketa, musika,
giro jatorra...

eskuratu zure txartela
herriko tabernetan

4 euro baino ez

ZATOZ

Dheskolektiboa

[sarean]

Erne kameradun telefonoekin

Gero eta webgune gehiagotan argitaratzen dira sakeleko poltsikoekin eginiko **argazkiak**

Denok daukagu lagunen bat sakelako telefono kameradun modernoa daukana. Di-da batean, telefonoa atera eta edozein egoera lotsagarri egiten diote argazkia. Gehienak, zorionez, ez doaz argazki hori lagunei erakustea baino urrunago; baten batzuek, ordea, webguneak eta guzti sortu dituzte (modblog delakoak) argazki horiek argitaratzeko.

Zorionez, delako tramankuluaz egin daitezke gauza erakargarri eta onuragarriak ere: Mexiko eta AEBen arteko mugako zenbait kazetarik *The Border* gunea sortu dute (<http://louiev.textamerica.com>), euren makina digitalaz eginiko argazkiez egunero bertako gertakarien berri emateko. Lehen-lehen eskuko informazioa. Honelako zoezer egin dute Katalunian ere kale bateko auzokideek. Au-



<http://cardedeu.textamerica.com/>

zoaren egoera larria salatzeko, bertan aterako argazkiak argitaratzen dituzte sarri <http://cardedeu.textamerica.com/> webgunean. Tankera honetako ehunka webgune topa daitezke textamerica.com helbidean, edonoren eskura dago-eta, modblog bat sortzea. Uribe Kostari buruzko webgune-rik ez da oraindik: ausar zaitetz lehena osatzen, irakurle! m

webgida

ILUSIO OPTIKOAK

> www.ritsumei.ac.jp/%7Ea_kitaoka/saishin-e.html

Benetan bitxia da webgune japoniar hau. Helbide luzea idazteak merezi du, bertan topatuko ditugu-eta, hamamako ilusio optiko ikusgarri. Ez da ezer berezirik behar, eta edozein ordenadoretik ikus daitezke. Zergatik ez proba egin?

XIAO XIAO

> www.xiaoxiaomovie.com

Internetek duen abantailarik handiena berezko unibertsaltasuna da; hau da, munduaren bestaldeko puntan edonork honelako animazio bitxiak sor ditzake, eta guk, ebetik, erraz-erraz ikusi. Estilo propio, dotore eta jostagarrian eginak daude, eta zenbait ezusteko barregarri topatuko dugu euren barruan.

Sarean aurkitu ditugu > Iragarki ikaragarriak




ALBE alerik ale

Maisuen mailan dabilen ikaslea

Xabier Paia > Urtetako lanaren ondoren, onenen pare

Munduan ezagunak ditu, gutxienez ehun eta bi, baina gutxiak dakite, benetan, nor den gure Xabi. Etxean, kalean, frontoian, saioak ia mila; janzteko ditu, oraindik, mutil honek txapel pila!

Testua: **Josu Arroyo**
Argazkia: **ALBE**



"Nik ez dut erronkarik jartzen nire bizitzan, erronkak berez etortzen zaizkit".

—Eskolako kiderik kultoenari egingo omen diot elkarrizketa. Zer duzu horretaz esateko?

—Ez zait batere gustatzen jarritako domina hori. Kulto hitza elitistegia da eta zenbait ezaugarri ekartzen ditu inplizituki. Inork ez dezala pentsa liburutegiko artoia naizenik, ikastarotik ikastarora ibiltzen naizenik edo lau karrera aldi berean egin behar ditudanik. Eguneroko jarduean gustatzen zait kultoa izatea, hau da, egunero ikasten dudana horretan ahalik gehiena sakondu ahal izatea. Hala ere, denok gara kultoak eskolan, gutako bakoitzak besteak baino adituagoa delako arlo jakin batean.

—Hainbat arlo landu dituen gazte batek, zein du bizitzan erronka nagusia?

—Bertsolaritzak oraindik ez dizkit espero ditudan fruituak eman (garrantzitsuenak saio bakoitzean dastatzen baditut ere); itzulpengintzan eta interpretaritzan esperientzia gutxiko pertsona naiz (eta berau zientzia enpirikoa da, dudarik gabe); ez dakit nora eramango nauen hain neure dudana musikaren trenak; auskalo zenbat gauza ezagutu nahiko nituzkeen... Nik ez

dut erronkarik jartzen neure bizitzan, erronkak berez etortzen zaizkit. Nire helburu bakarra egiten dudana horretan zorientzua izatea da, besterik gabe.

—Kapaza al zinateke, Xabi, azken puntu bat lau hizkuntzatan esateko?

—Begien bidez esan liteke / hitzen bidez ezin dena. Una mirada puede expresar / mucho más que mil palabras. Ce qu'on ne peut pas dire avec des mots / on peut le dire avec les yeux. Everything that we can't express by words / could be expressed just with a glance.

—Bertsoa asko landu duzu betidanik.

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Xabier Paia Ruiz..
- ▶ 1982ko urriaren 24an jaioa, Bilbon.
- ▶ Algortar peto-petoa.
- ▶ Pianoko eta flautako ikasketak ditu.
- ▶ Bertsogintza alorrean, itzultzaile, interprete eta irakasle lanak egin ditu.
- ▶ Gaztelania irakasle eta hizkuntza ikertzaile ere ibili da Quebec aldean.

HIRU LERROAN

HIRI BERTSO, HIRU DESIO

Bertsogintzailea: **Xabier Paia**
Doinua: **Sei puntuko nagusia**

1

Hiru desio, hiru gurari pertsona baten neurria; zertan zuzendu arreta nire anbizio iturrira? Nire zilborra ahaztu eta jarri gaitzen begira; hiruren ordeztu bakar bat duen Euskal Herrira. Bere kasua aztertu eta barneak esan dit, «tira, nahiago nuke hiruren ordeztu zazi izango balira».

2

Elkarrekiko gordetzen dugun horrenbeste prejuizio, sudur azpiko euskara falta, nortasunaren traizio. Egunkariak desagertzea epaileen tradizio, ohiko bihurtu den zapalkuntza Penintsulan ofizio. Eskubideak ukatu nahian mila misil zein misio; horrelakoak desio ditut: ez egotea desio!

3

Dagoeneko aipatu ditut nire ametsen bi zio, baina zuk ere izango duzu bizitzan hainbat bizio. Seguru nago badaukazula buru bete anbizio; beraz, azken hau zuretzat doa, izan gaitzen sozio. Azkenaurreko lerroa horra, zuretzako negozio: besterik ez dut desio.

“Fredri: laguna. Itxaso: kimu berria. Ni: heldulekua. Hirurok: habia”

Zer jaso duzu ordainetan?

—Gure ama antzerkian ibili zen gazte denboran, eta behin, Stanislaski metodoaren oinarriak kontatzen ari zitzaidala, ustekabean izena aurkitu nion mikro aurrean askotan gertatzen zaidanari: kantuan ari naizenean, inoiz ezagutu gabeko neure buruaren ezaugarri bereziak azaleratzen zaizkit, bat-batekotasuna, bihotzeko sentimenduak eta buruko ideiak uztartzen ditudan bakoitzean. Adierazpen honek pertsona baten irribarra eta oilo ipurdia eragiten dituenean, bertsogintzaren paroxismora iristen naizela senti neza ke.

—Definitu hitz batez hiru pertsona hauek: Fredri, Itxaso eta zu zue.

—Fredri: laguna. Itxaso: kimu berria. Ni:

heldulekua. Hirurok: habia.

—Baloratzen al da gurean paiatarrek bertsogintzan egindako lana?

—Oraingoan okerreko etxean jo duzu aldaba. Errudun susmagariari ezin galde diezaiokezu lurtean dagoen gorpua berak akatu duen. Hori lekukoek esan behar dute, saioz saio paiatarren krimenen testigu direnek, izan ere, gure delitua euren eskuetan dago, euren eskuen txaloetan. Edonola ere, oraindik ere gazteegiak gara omenaldirik izateko, ezta?

Ez dut uste elkarrizketa honi eranskin berezirik egin behar zaionik, irakurriz gozatzea baino ez dago. Hori bai, asko kostatu zitzaigun Xabierekin kontaktuan jartzeari, eta lortutakoan, tokatzen den legez, bertsoak ere eskatu genizkion.

BERTSOAGENDA

BIHOTZA GAZTE jaialdi berria

Urriak 25, 19:30ean
Algortako Itxasgane kulturgunean
Bertsolariak:
Joxe Agirre, Manolo Arozena,
Jon Lopategi eta Jon Azpillaga

Gogoratu ALBEko web orrian bertso agenda gaurkotua duzuela:
www.albegetxo.net

Hemen, hor, han

Izen morfologiagaz amaitzeko, leku aditzondoak dakarguz oraingoan. Betiko legez, lehenik eta behin, tauletan bildu ditugu denak. Ondoren, adibide batzuk ikus ditzakezu, irakurle, beronekaz eta hurrengoko elkarrizketakaz, elementuon erabileraz hobeto ohar zaitezten eta zeuk ere erabili ahal izateko.

Testua: **Urtzi Iglesias**

Izen morfologia: Leku aditzondoak

Hona hemen, bertoko euskaran erabiltzen diren leku aditzondoak. Lehenengo taulan, aditzondo arruntak ditugu. Hauetako '-txe' erantsiz, indartuak sortzen dira; nahiz eta hauek lar erabiltzen ez diren. Bigarren taula, berrindartuek osatzen dute. Eta azkenik, 'ha-' gehitzen dutenak bildu ditugu.

	HEMEN	HOR	HAN
Non	hemen	hor	han
Nora	hona	horra	hara
Nondik	heméti	hórti	hándi
Nongoa	hemeko	horko	hango
Norantza	honántza	horrántza	harántza
Noraino	hónaño	hórraño	háraño

	BERTON	BERTAN
Non	berton	bertan
Nora	bertora	bertara
Nondik	bertóti	bertáti
Nongoa	bertoko	bertako
Norantza	bertorántza	bertarántza
Noraino	bertoraño	bertaraño

	HAMEN	HAOR
Non	hámen	háor
Nora	háona	háorra
Nondik	hámeti	háorti
Nongoa	hámeke	háorko
Norantza	háonantza	háorrantza
Noraino	háonaño	háorraño

Adibideak:

Hemeti dana ikusten zan, dana eoten zan labraduta (Sopela)

'Hemetik dena ikusten zen, dena landua egoten zen'

Gizona Butroiko, bertoko, zan ta geuk euskera itte gendun; baia hamen kanpoko jente eote zan lez beti... (Berango)

'Gizona Butroikoa, bertokoa, zen eta geuk euskaraz egiten genuen, baina hemen beti kanpoko jendea egoten zenez...'

Esakera

«Asto batari buztena kendu, besteari imiñi»

Arazo bat sortzen zaigula, aurkitutako konponbideak, arazoari urtenbidea ekarri ordez, aurreko moduan lotzeko edo beste bat sortzeko baino balio izan ez duenean esan ohi da esakera hau. Hori bai irtenbide ona!

Gurberbake^{2e8}

GURE AZENTU(VIII)

Testua: **Xabi Bilbao**

Azentun ganerako aurreko kapitulu bietan ikusi gendun zelan maileguk, hau da, erderatik eta latinetik datozen berbak, sarri azentu darauden gure euskeran. Baia ikusi genduzen kasuk izenak ixen ziren danak. Gaur beste mailegu batzuri egin dotzegu jaramon: erderatik datozen aditzeri. Hasteko, esan behar da mailegu ez direzen aditz kasik danak azentubakok direzela aitetuteko erabiltzen dogun forman, hau da partizipion. Hemen doaz adibide batzuk:

sartu, hartu, kendu, sakondu, biztu, zabaldu, ezetu, txikertu,...
ikusi, erosi, ibilli, imiñi, ikisi, bizi,...
egon, esan, emon, yon, yan, itxun,...
erre, hil, yo, iyo, atara,...

Horrek eta ehundeka gehiau aitetu leitez euskerazko jatorri dauken aditzen arten, azentubakok direzenak. Badauz azentudunek bere, baia askoz gitxia direz:

asárratu, bóta, érein, éron, erábilli, ikératu, albóratu, iribiotu, iriki, itxédon, yáusi, yáyo eta askoz geihaurik ez da topako (eta eurotariko asko *(e)ra-* aurrizkidunek direzela esan leite).

Mailegu direzen izenatan ikusi gendun ugeri direzela azentu daukenak, baia ez da holan pasaten aditz mailegukaz. Erderatik datozen aditz klase gehienak azentubakok direz gure euskeran. Gauzak argi ikusteko, komeni da erderako (gaztelaniako) gramatikan lez, *-ar*, *-er*, *-ir* "infinutivo"-ko formak baktotxa beran aldetik ikuste:

-ir motako aditzek mailegatute: *elejidu edo eleju, prijidu/priju, kunplidu/kunplu, segidu/segu, medidu/medu, eskribidu/eskribu,...*

-er motako aditzek mailegatute: *defendidul/defendu, sostenidu/sostenu, entenidul/entenu, leidul/ledu, obedu...*

-ar motako aditzek mailegatute: *pasa, koménta, topa, sálta, sobra, konpára, pinta, akórda, olga, kanta, armósa, paga, gobérna, gasta, pinta, barrúnta, proba,...*

Adibidek erakusten dauden lez, erderako *-ir* eta *-er* aditzek azentubakok direz gure euskeran. Baia zer pasaten da *-ar* aditzekaz? Adibidek erakusten daude batzuk azentudunek direzela, eta beste batzuk, ostera, azentubakok. Zegaitik batzuk azentu bai eta bestek ez? Badau araurik edo legerik? Bai, badau, eta gure irakurle zorrotzok seguru behingon topako dozuela. Baia nik hurrengo kapitulureko itxiko dot erantzune.

Ondo ibilli!



zure
dirulaguntza
behar-beharrezkoa
dugu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / aldizkaria@euskal-
net.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58
31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



Adi lagun!
SARRERAK DEBALDE

Kafe Antzokiak urrian antolatutako ekitaldiarako sarrerak lor ditzakezu. UKra deitzen duten pertsonen artean bina sarrera zozketatuko dira

urriak 23 osteguna, 22:00

JABIER MUGURUZA

deitu! 94 491 13 37




gaizka escudero / villabotas-ekoa

Sagar erreak

Egiteko postre gozo eta errazik badago, hauxe duzu, lagun. Har itzazu lau sagar *-erreineta* erakoak oso egokiak izaten dira- eta ondo garbitu. Labeko bandejan ahoz gora ipini, eta sagar bakoitzaren gainean azukrea eta ardo zuri txorrotada bota. Ardorik ez baduzu, ur apur bat ere egokia da. Ondoren, labean, su gogorrean, hamabost bat minutuz eduki hau guztia. Kitto! On egin! ^m

osagaiak

- lau sagar • 100 gramo azukre • ura • kanela •



itsaso arana / jolastoki-koa

Upelak

Ardoa eta upelaren artean, ardoaren bilakaeran eragina duten makina bat erreazio eta truke gertatzen dira, eta hauek ardoa dastatzean baino ezin dira igarri; esaterako, haritzaren tanino garratzen eta hollejo-en tanino gozoen arteko fusioa, edo egurraren bainilla ikutu finak...

Lehenengo gustua. Egur zapoak eta aroztegikoak ohikoak ziren antzinako Errioxa ardoetan, baina ardoa upeletan denbora gehiago egoteagatik baino, beronen izaera ahulagatik gertatzen zen. Oro har heldutasun gutxiago izaten ziren, fiabardurarik gabekoak. Arrazoa, egurrean zehar sartzen zen oxigenoa baino, lekualdeketek (trasiegoetan) eragiten zuten gehiegizko aireztatzea.

Oraingo gustua. Gaur egun, aurkako muturrera jo da. Upeletan denbora gutxiago egoten da ardoa, eta lekualdaketa gutxiagoz botilaratzen da. Gehiago igartzen dira ondutako hollejo-en zapo konplexuak, eta horregatik freskotasun atsegina erakusten dute. Horrela ba, haritzetik jasotako fiabardurak fruituaren lehen aromekin eta mahatsaren berezko aromekin elkartzen dira.

Ardoa zahartzeko egurrik onenak

Espanian Ameriketako haritza erabili izan da, batez ere, merkea eta eskuratzen erraza zelako. Orain Frantziakoa erabiltzen da gehiago.

Frantziako haritza: haritz honekin eginiko upeletan ondu diren zuriek zein beltzek ikutu krematsu eta bainillazkoa izaten dute. Aldi berean, gozoago bihurtzeko joera izaten dute.

Ameriketako haritza: ardoa egur zapo handiagokoa eta indartsuagoa izaten da, egur honek tanino asko dituelako. Gero ikutu torrefaktuak azaltzen dira eta aberastasun handia arometan.

Errusiako haritza: gutxi erabiltzen da, eta duen ezaugarriak aipagarriena zera da, ardoari zedroaren antzeko perfumeak ematen dizkiola. Amerikarra baino krematsuagoa eta ez hain indartsua. ^m

Kux Kux jatetxea

Larrabasterrako "historikoa"



Argazkian, Endika García sukaldaria


Izenak Arabia ekarriko dizue gogora beharbada, baina Larrabasterrako Kux Kux jatetxean euskal janari petoa ematen dute. Endika García sukaldariak egin digu jatetxearen aurkezpena: bederatzi urte zeuzkala (1983an) ireki zuen bere familiak Kux Kux, ordura arte hutsik zegoen lonja batean, eta gaur egun berak eta amak, Mari Pili Gorostolak, daukate jatetxearen ardura.

"Eguneko menua ematen dugu batez ere, astelehenetik zapatara", diosku Endikak. Bariku eta zapatu gauetan afariak ematen dituzte, "enkarguzkoak beti ere". Ez daukate, beraz, karta edo antzekorik. Orain, jatetxearen historian lehen aldiz,

plater konbinatuak eskaintzen hasi berri dira, asteburuetan. Domeketan itxi egiten dute.

"Berezitasunik? Ez dakit ba". Endikak ez du, prestatzen dituen guztien artean, plater jakin bat nabarmendu gura, baina indabek arrakasta handia eduki ohi dutela aitortzen du hala ere. "Bildotsa ere bai beharbada, baina hori ez da eguneko menuan sartzen". Jantoki bi dauzka Kux Kuxek, guztira 50 laguntzako lekua-gaz, eta oso sarritan, jendez beteta. ^m

KUX KUX JATETXEA Gatzarriñe 3, Larrabasterra
Telefonoa: 94 676 12 13
Eguneko menua: 7 euro (zapatuetan 8 euro)



Asador



- ¥ Zabalik egunero
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak norberaren gustura

- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
 Amezi, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea

adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen

Bilbo-Plentzia errepeidea
 Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

zure **publizitatea** hemen

UK 94 491 13 37



ITXASGANE
prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritzule z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T: 94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak
Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Saturno zure zeinuan murgildu dela eta, osasunez ez zara ondo ibiliko; hala ere, ez da gauza larria izango. Oso kiro-lari ona izateko aukera duzu, baina horretarako ezinbestekoa izango duzu entrenamendua.</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Asteburuan ez duzu kalera irteteko gogorik izango: erabili ezazu etxean liburu bat irakurtzeko. Lagunekin ongi konponduko zara, eta gainera jende ugari ezagutuko duzu eta adiskide izatearen garrantziaz jabetuko zara.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Bidaia egingo duzu eta zalantzan egongo zara nora joan. Azkenean, erabaki egokia hartuko duzu. Ondo pasa. Marte zeinutik atera eta Jupiterren berezko indar batek zeure barnea hobeto ezagutzen lagunduko ditu.</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Baretu egin beharko zara apurtxo bat. Norbaitek esan al dizu inoiz altuegi egiten duzula berba? Lasaitzea komeni zaizu eta Jatarra osteratxo bat egitea ez da ideia txarra.</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Diru aurrezteak parranda ederra egiteko aukera emango dizu Gabonetan; hala ere, datozen hamabost egunak ez geldirik eman. Lan gehiago egin behar duzu, baldin eta emaitza onak lortu nahi badituzu.</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Bikotekidearekin haserrealdia izango duzu, baina zapatu gauean emango dizun ustekabeak dena ahazten lagunduko ditu. Ez ezazu hainbeste txorakeriarik egin, bestela jendeak ez ditu ezer sinestuko.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Hamabostaldi honetan ligatzeko aukera izango duzu, lotsa alde batera uzten baduzu behintzat. Festa batera joatekotan bazabiltza, joan zaitetz beldur barik, zure printze edo printzesa urdina zain izango duzu eta.</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Diru larregi gastatzen duzu asteburuetako parrandetan, eta gero asteen zehar larri-larri ibiltzen zara, kokolo hori! Datozen egunotan ez zara oso osasuntsu egongo, eta agian asteburua ohean igaro beharko duzu.</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Ez zaitetz hain burugogorra izan, gehiengan arrazoia baduzu ere, besteen iritziak onartzea ona izaten da. Maitasun kontuetan gorabehera dexente edukiko duzu, diruz ondo ibiliko zara eta katarroa hartzeko arriskua duzu.</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Bidaia bat egiteko aukera izango duzu. Lagunak egiteko aukera paregabea da; beraz, aprobeitza ezazu. Amari gehiago lagundu beharko zenioke, bestela paga barik geldituko zara. Zure esku dago!</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Ez edan hainbeste kalimotxorik, bestela edozer gauza esateko arriskua edukiko duzu. Oso maitatua sentituko zara zure lagunen artean, baina hala ere gezurtxoren bat esan dizutela jakingo duzu.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Internet-en murgiltzea esperientzia interresgarria da; norbaitekin harreman serioa hasteko aukera izango duzu. Gauza ona litzateke musika-tresna bat jotzen ikasiko bazenu, zure barneko sentimenduak adierazi ahal izateko.</p>

mungia
OKINdegia



Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamabi beltzune ditu.

Ezker eskuin

1. Zabalpen. 2. Aditzera emanak. 3. Zuk naramazu eta haiek ...
 . Bat. 4. Bibliako lehen emakumea. Antzinako kalkulu-taula. 5. Tontor. Gela handi eta zabal. 6. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. Bi ken bat. Zero. (Zah.) Zakur. 7. Merkataria. 8. Pertiako enperadorea. (Infin.) Ukitu. Iodoaren sinbolo kimikoa. 9. Kasik. Random Acces Memory. Atzizkia. 10. Erne! Inguru.

Goitik behera

1. Udal hautetsia. 2. Euskal lurraldea. Saudi Arabiako hiriburua. 3. Nafarroako herria, Larrunen. Iodoa. 4. Ofizial turkiarra. Heldu naiz. 5. Tibeteko apez budista. Hizki grekoa. Euskal alderdi politikoa. 6. Arrain mota. Aldizkari hau. 7. Urteko sasoiak. Röntgen. 8. Haiei, nuke. Letoniako hiriburua. 9. Da. Iparraldean, mesedez. Indioa. 10. Eguzki. Oraindik.

Soluzioak

O	N	V	H	V	B	A	I	V	D
N	I	G	M	R	A	M	R	I	A
I	R	O	I	K	U	O	R	I	Z
V	A	R	I	V	L	T	U	R	A
R	O	O	B	A	T	B	A	O	O
O	E	T	O	A	R	E	N	G	A
O	K	O	A	B	A	V	A	B	E
I	E	V	A	M	A	R	A	N	V
K	A	G	A	R	I	A	K	I	R
N	D	E	N	D	E	N	D	E	N



eUSKĀLDUNON
denbora-pasa eta hitz jokoan hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK
 HELBIDEA
 HIRIA
 LURRALDEA..... P.K.
 TEL. E-MAILUA

KONTU KORRONTEA:.....
 LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutsatila 20300 IRUN
 Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@xedera.com

www.xedera.com



Unai Brea

Berangoko ikastola, 1980

60ko hamarkadan, frankismo betean, lehen urratsak eman zituen Berangoko ikastolak. Zelan edo halan, zailtasunei aurre eginez, eustea lortu zuen ikastola hark, ume faltak ixtera behartu zuen arte. 80ko hamarkadaren hasieran gero eta ume gehiago hasi ziren Algortako San Nikolas eta Sopelako Ander Deuna ikastoletan eta Berangoko eskolan izena ematen, eta 1982-83 ikasturtearen hasierarako zortzi ume besterik ez ziren geratu ikastolan. Hasi egin zuten kurtso hura, baina egoerak ezin zuen luzeegi iraun, eta azkenean, 1982ko urriaren 24an, Ander Deuna ikastolara joan ziren zortziak, Berangoko ikastolaren historia behin-betiko itxiaz. Goiko irudia haren azken garaia dagokio. m

Jesarrita, bakarrik: Saioa Brea.

Lehen lerroa, ezkerretik eskumara: ?, ?, Sendoa Altonaga, Unai Brea, Erisenda Artolozaga.

Bigarren lerroa, ezkerretik eskumara: ?, Amaia Nikolas, Jokin Aresti, Asier Lorente, ?, Aketza Sánchez, Ziortza Zenikazelaia, Mirian Brea, Asier Serrano, Gorka Serrano (?), Igor Fernández, ?, Antxoka Uranga, ?, Jon Zelaia, Eider Meñika.

Hirugarren lerroa, ezkerretik eskumara: Ekain Uribarri, Izaskun Olabarrieta, Raúl Prieto, Erros Uribarri, ?, Nerea Bilbao, Iñaki Berasategi, Ziortza Zelaia, Unai Uranga.

Laugarren lerroa, ezkerretik eskumara: ?, ?, Kepa Garai, Asier Nikolas, Oskar Uranga, ?, Itxaso Zelaia, Amagoia Aurrekoetxea, ?, Rosa Olabarrieta, Josu Uribe.

asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Mikrofono baten aurrean lehen aldiz ipini zenean 17 urte zituen
- *Semáforo Pop* izan zen telebistan aurkeztu zuen lehen saioa
- 2001eko udan ibilbide berri bati ekin zion Antena 3 katean

> Aurrekoaren erantzuna: Eneko Acero
 > Irabazlea: **Belate Bueno (Getxo)** *

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
 aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki **Jatetxea**



Mendieta kalea 47
Sopela

Tel. erreserbak: 94 676 07 61
 astelehenetan itxita

[aitormenak]

XABIER MENDIGUREN > Kontseiluko Idazkari Nagusia

“Lelo bat? Bai euskarari!”



JUAN CARLOS ELORZA (ARGAZKI PRESS)

Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat?
Seriotasuna dela esango nuke.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?
Askotan, gauzak pentsatu gabe egiten ditut; bai, hori izan daiteke nire akatsa, inpulsiboa izatea.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...
Behin motor batek harrapatu ninduen, ez zidan zauri garrantzitsurik egin, baina dezente ikaratu nintzen.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?
Asko miresten ditut idazleak, pintoreak... eta bat aukeratzea nahiko zaila iruditzen zait. Baina izen bat esan behar badut, idazleen artean bereziki gustatzen zaidana Günter Grass da.

Zein da zure libururik gogokoena?
Juan Mari Irigoienen *Oilarraren promesa*. Irakurri nuenean asko gustatu zitzaidan eta bereziki gogoratzen dudana liburua da. Hala ere, liburu asko eta asko gustatzen zaizkit, baina hori euskaraz idatzita dagoenez...

Abestirik gustukoena?
Nafarroa, Arragoa. Xabier Leterena.

Eta film bat?
Hainbeste eta hainbeste daude! Bertolucci-ren *Novecento* bereziki gustoko dut, bai gaiaren aldetik, bai oso ondo eginda dagoelako. Oro har asko gustatzen zait zinea.

Zein leloekin egiten duzu bat?
Bai euskarari!

Zerk ematen dizu beldurra?
Min fisiko handia edukitzeak. m

XABIER MENDIGUREN— Ezkio-Itsason jaio eta gaur egun Donostian bizi da. Filosofia eta Letrak ikasi zuen eta irakasle hasi lanbidez. 1998ko otsailean Euskararen Gizarte Erankundearen Kontseiluko Idazkari Nagusia izendatu zuten, eta lan horretan dihardu gaur egun ere. Artikulu ugari idatzi ditu Euskal Herriko hainbat egunkari eta aldizkaritan, besteak beste RIEV eta SENEZen. Bere lanen artean itzulpenak dira nagusi, horien artean Shakespeare-ren zazpi lanenak.

Haurrentzako

ipuin bilduma



- 1 Nemesioren itzala**
Pako Aristi
Jokin Larrea
- 2 Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria**
Bernardo Atxaga
Mikel Valverde
- 3 Zazpigarrena eta azkena**
Patxi Zubizarreta
Jokin Mitxelena
- 4 Amona basoan galdu zenekoa**
Arantxa Iturbe
Elena Odriozola
- 5 Ni ez noa berriz Lourdesera**
Joxemari Iturralde
Iñaki Martiarena, "Mattin"
- 6 Marina**
Mariasun Landa
Asun Balzola
- 7 Graak!**
Anjel Lertxundi
Antton Olariaga
- 8 Mixa marrau**
Jesus Mari Olaizola, "Txiliku"
Jon Zabaleta
- 9 Omar dendaria**
Harkaitz Cano
Antton Olariaga
- 10 Txori kantariak poeta hegalaria**
Hainbat poetaren testuak
Elena Odriozolaren poema grafikoa

Ipuin guztiak gordetzeko,
ZUMETAk ilustratutako
kutxa hau opari

Urriaren 11tik aurrera
asteburu oro ipuin bat



LAGUNTZAILEAK



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gobierno Foral de Gipuzkoa

ERAGILEA



Euskaldunok behar dugun **berria**